

TXOSTENA
2 0 1 9
MEMORIA



Big Dataren ozeano izugarrian, robotak, algoritmo konplexuek gidatuta, Ulises emulatuz dabilta, zurrunbiloak eta arrezifeak saihestuz ibilbide egokiak aurkitzeko, eta, hala, itsasoan noraezean dabiltzanak aurrean eramanez edo alde batera utziz, benetan zain dituzten eta pozarren hartuko dituzten haiengana iristeko.

En el inmenso Océano de Big Data, robots dirigidos por complejos algoritmos emulan a Ulises, sorteando remolinos y arrecifes, para descubrir rutas que, arrollando o ignorando a navegantes sin rumbo, les lleven hasta quienes les conocen, entienden su idioma y les acogen con entusiasmo.

Aurkibidea

Indice

Administrazio-kontseilua	03
Aurkezpena	05
Daturik adierazgarrienen laburpena	54

Consejo de Administración
Presentación
Resumen de datos más significativos

Ikuskaritza-txostena	57
----------------------	----

Informe de Auditoría

Finantza-informazioa	64
----------------------	----

Información Financiera

Argibide Osagarriak

Zuzendaritza Taldea	80
Bulego Sarea	81
Identifikazio-datuak	82

Informaciones Complementarias

Equipo Directivo
Red de Oficinas
Datos Identificativos

EUSKARRI DIGITALA

SOPORTE DIGITAL

Urteko Kontuak eta Kudeaketa-Txostena

Cuentas Anuales e Informe de Gestión

Ikuskaritza-txostena
Urteko Kontu Bateratuak
Kudeaketa-txosten Bateratua
Gobernu Korporatiboaren Txostena
Emitza banatzeko proposamena

Informe de Auditoría
Cuentas Anuales Consolidadas
Informe de Gestión Consolidado
Informe de Gobierno Corporativo
Propuesta de distribución de resultados

Administrazio-kontseiluaConsejodeAdministración

Presidentea

Caisse Régionale de Crédit Agricole Mutuel
Pyrénées Gascogne.
representada por
D. Jean-Paul Mazoyer jaunak ordezkatur

Presidente

Presidenteordeak

*D. Fernando Villanueva Iñurrategui jauna

Vicepresidentes

Kontseilari Ordezkaria

*D. Jesús Suárez Garrido jauna

Consejero Delegado

Batzordekideak

Dña. Ana Arriola Boneta andrea
D. Marc Didier jauna
*D. Juan José Etxeberria Monteberría jauna
D. Felix Iraola Escrihuela jauna
Dña. Miren Loyola Zuloaga andrea
D. Ignacio Martín San Vicente jauna
D. Jean-François Rinfray jauna
D. Esteban Salegui Arbizu jauna

Vocales

Idazkaria (ez administratzailea)

D. José María Gastaminza Lasarte jauna

Secretario (no administrador)

*Exekuzio-batzordeko kidea.

*Miembro de la Comisión Ejecutiva

Aurkezpena

SARRERA

Duela urte batzuk hasitako ohiturarekin jarraituz, sozio-ekonomiarekin lotutako zenbait aipamen eta iruzkin kritiko eginez hasiko dugu Bankoaren 2019ko memoria. Izan ere, gogorarazi nahi denez, enpresen jarduna -eta banku bat enpresa bat da- testuinguru hurbilak baldintzatzen du, bai eta munduko beste eremu eta leku batzuetan izandako gertaerek edo hartutako erabakiek ere. Globalizazioa errealitate bat da ondorio guztietarako, bai ondorio ekonomiko-etarako bai ondorio sozialetarako.

Aztertu beharreko gaien aukeraketari dagokionez, finantza-erakunde batek aztertu ohi dituen gaiak lantzen dira, oro har, memorian, baina, horrez gain, banku-ikuspegi zorrotzaz haragoko ikuspegia zabaltzen ahalegintzen gara, sarrerez arduratzen den pertsonaren interpretazio kritiko edo oso kritiko batekin, gainera, Bankoa osatzen dugun pertsonon irizpide eta sentipen orokorraren babesa duena.

2019. urtean izan diren gorabeherak aintzat hartuta, ongi arrazoituta dago ziurgabetasunari buruz hitz eginez has-tea; oro har oso gai erabilia den arren, benetan egokia da kasu honetarako.

ZIURGABETASUNA

Ziurgabetasuna ekonomiaren eta bizitzaren bidaide banaezina izan da beti, eta hala izaten jarraituko du. Zenbait garaitan -garai luzeagoak nahiz laburragoak izan-, gai edo arlo jakin batzuei buruzko ziurgabetasuna, desagertu ez arren, gutxitu egiten da, eta, horrenbestez, itxurazko egonkortasun-aldi bat bizitzeko aukera ematen du; horrelako al-dietan, une horretan bizi den egoerarekin koherentea den etorkizunari begira hartzen dira erabakiak, dagozkien au-rreikuspenak eginda. Baina badira jarduketa pertsonal alderdikoak, nahita egindakoak eta aurrez pentsatuak ere, egoera ekonomikoan eta sozialean aurrez lortutako eta gozatutako egonkortasuna zalantzan jartzen dutenak eta horrekin hausten dutenak. Halako egoera bat izan da 2019. urtean, 2018an hauteman ziren ziurgabetasun berak -aurreko bi ekitaldietatik zetozen- izan baitira, areagotuta, gainera. Ziurgabetasun horien artean, merkataritzarekin eta bankuekin lotutakoak nabarmentzen dira maila ekonomikoan eta sozialean.

Horren adibide argia da 2016ko ekainean hasitako BREXIT ulertezina, inkongruentziaz betea eta pertsonaia ilun samarrek goratua, hau da, helburua lortzeko, gezurrak -fake news- erabiltzen dituzten pertsonak, ekintzaren lehen lerroan inoiz agertzen ez diren arren beren intereseko gaietan eragiten eta azpikerian ibiltzen direnek. Pertsona horiek, inperioko garai loriatsuen nostalgia faltsuak eta patriotismo ia mistikoak baliatuz, norberaren egoa indartzea eta beren ondasunak gehitzea baino ez dute nahi, eta helburua lortzeko, zenbait transakzio manipulatzeko boterea erdiesten dute. Baina helburu hori geldiarazi egiten da, Europar Batasunak ezarritako irizpideen ondorioz. Onbide-kutsurik ez duen jarrera horrekin, eta beste bozketa batek beren asmoak zapuztuko zituen beldurrez, Europatik ihes egiteko ideia-aren inspiratzaileek presioa egin diete unean uneko negoziatzaileei; azkena, hain zuzen, Boris Johnson harrigarria izan da, kultua, anbizio handikoa eta histrioniko samarra, Erresuma Batuko ezohiko lehen ministroa.

BREXITak (gai honi atal bat eskainiko zaio aurrerago) eta hori gauzatzeko moduak kolpe latza eragingo diote Merkataritzaren Mundu Erakundeari; izan ere, zenbait hitzarmen aldatu egingo dira, eta horrek ziurgabetasuna sortuko du, Erresuma Batuarekin salerosketan aritzen diren herrialde guztietara zabalduko dena.

SARRERA

Halaber, ziurgabetasunak (hobe esanda, "amets gaiztoak") sorrarazten ditu Donald Trump Estatu Batuetako pre-sidenteak, nazioarteko gai batzuen eta besteen inguruan izan dituen ateraldi apetatsuek -zenbait ongi aztertutako desegokikeriekin- presidentetza lortu zuenean egindako lehen adierazpen haiek -"America first!! America first!!"- so-rrarazitako ezinegon bera edo handiagoa eragiten baitute gizartean, gaur egun ere. Mendeku eta mehatxu tonuz egin zituen adierazpen haiek, suminduraz entzun zituztenak, eta haien ondotik, berehala etorri ziren ekintzak, haserre bizia eta geroz eta handiagoa eragin zutenak, bai bere herrialdeko zati handi batean bai munduko gainerako txokoetan. Izan ere, Trump presidentearen esku-hartzeak eta ateraldiak oso egoera konplexuan izan dira, zuhurtasun-ekintza ez hain egonkorrez betetako egoeran; zuhurtasun-ekintza horiek, hain zuzen, urteetan izandako elkarriketei, elkarri egindako lagapenei, dimisioei, ahaleginari eta kasuan kasuko funtsezko pertsonen borondate onari esker lortu dira.

Ameriketako presidentearen ekintza horiek (memoria honetan behin eta berriz aipatuko dira), distantzia batetik begiratuta, ongi hausnartu gabekoak direla dirudite, edota harrokeriaren eta kapritxozen nahiz gehiegizko nagusikeriaren ondorio, eta ez ditu kontuan hartzen hainbat herritan eta zenbait herrialdeko ekonomian eragiten dituen albo-kalteak. Dena den, iragandako denbora honetan ikusitakoak ikusita, ez da aukera hori planteatu beharrik; izan ere, gogoeta eragozpen bat eta denbora-galtze bat da Trumpen iritziz, hau da, ekintzak behar dira, unean-unean gogoak ematen diona egitea.

Bada, hain kasualitatea ez den oportunismoa baliatuz, Boris Johnsonek Donal Trumpen babes sutsua izan du BREXITaren aferan sartu zen lehen unetik. Donald Trump ikaragarri gustura dago Erresuma Batuak Europar Batasun erantzunzale eta gogaikarriarekin izan duen hausturarekin, eta ziurtatu du, etorkizunean, ezkontza aurreko harreman polita izango dela *Amerika Kapitainaren* eta *Albion Zitalaren artean*. Eta noski, ezkonsaria izango du, besteak beste, Erresuma Batuan finkatuko diren Estatu Batuetako enpresa-multzo handia, zerbitzuen sektoreko hainbat arlotakoak, sektore publikoaren gabeziak ekintza eraginkor eta, batez ere, errentagarriekin ordeztu ohi dituztenak. Izan ere, presidente eskuzabalak jakitera eman duenaren arabera, behin Erresuma Batua Europar Batasunaren lotura deseroso eta zorrotzetatik askatzen denean, eta haren "ongizate-estatu" zaharkituko zenbait erakunde desagerrarazi ondoren, merkatu bizi eta zabal bat irekiko da Estatu Batuetako enpresa eskuzabalentzat, beren trebetasun (*expertise*) eraginkorraz lagunduko dietenak antza hain dinamikoak ez diren eta behar bezala dokumentatuta ez dauden britainiar profesionalei, baita City of Londomeko profesionalei ere. Zinez, "loteria" herritar jasankorrentzat.

Ezin da kexarik egin. Ziurgabetasun oro bidaide deserosoa, tematia eta gogaikarria da, enpresekin nahiz estatuekin lotutako erabakiak zailtzen dituen eta gugandik urrundu ezin izango duguna, harik eta haren kausak (objektiboak badira) desagertu arte edo haren bultzatzaileek (pertsonak) erabaki hori hartu arte, ez eta bultzatzaile horiek jokoza kanpo utzi arte ere, defentsa aurreratuta edo erasorako beste aukera batzuk aukeratuta (hain desiragarriak ez izan arren).

Ziurgabetasun orok -eta, bereziki, inongo justifikaziorik gabe eragiten dituztenek- sortzen duen egonezinak ez du eragotzi behar gure uste edo espekulazio bati arreta jartzea; hau da, diskurtso koherente bat sustatu behar dugu, eta eskura ditugun aukerekin zer ekintza bultzatu ditzakegun zehaztu. Behatoki horretatik, erabakiak hartu beharko ditugu, ausardiaz eta intuizioz zenbaitetan, huts egiteko arriskupean bada ere; izan ere, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik, ekintzarik eza irtenbide okerra da, ez baititu erantzukizunak baztertzen, eta gainera, mesede egiten die informazioa manipulatzat, aurrez egindako hitzarmenak eta akordioak gutxietsiz, edota gizartea engainatuz ziurgabetasun horiek eragiten dituztenei.

Zorionez, horrelako pertsonaien aurrean (pertsonaia faltsuak, helburu bakartzat euren onura lortzea dutenak) bada beste era bateko pertsonak ere –asko, gainera–, horrelako jarrerei eta gehiegikeriei aurre egiten dietenak eta haien gutziak inposatzearen aurka gogor egiten dutenak. Hau da, gerra berriak hastea eragozten dute, edo eragozten saiatzen dira, eta, horrela, munduak bizitzeko leku egokia izaten jarrai dezan laguntzen dute; horrez gain, gizadiak, inongo salbuespenik gabe, aurrera egin dezan saiatzen dira, nahiz eta aurrerabide hori motelagoa izan, zenbait bihozgabe boteretsuk edota boteretsu bihozgabe batzuek nahita elikatutako ziurgabetasun horiek gabe izango litzatekeena baino.

EGUTEGIKO ORRIAK

"IN MEMORIAM"

Uztailaren 17an, Emilio Ybarra Churrua, BBVAko presidente ohia, hil zen Madrilen, 82 urte zituela. "Azken bankari handia" titularrak iragarri zuen albistea munta handiko egunkari batek. Ybarraren irudia, zuzena eta atsegina, modu liluragarrian iruzkindu zuen Pedro Luis Uriartek, BBVAko presidenteorde eta kontseilari delegatu zela, haren ondokoa eta adiskide adeitsua izan zenak.

Uztailaren 21ean, Jose Maria Ormaechea zendu zen, 92 urte zituela. Urte luzez, Euskadiko Kutzako (egun, Laboral Kutxa) zuzendaria izan zen, Mondragon taldeko lehen lehendakaria, Don Jose Maria Arizmendiarretak inspiratu eta bultzatutako kooperatiba-fenomenoaren sortzaile adierazgarrietako bat.

Eta irailaren 7an, berriz, Alfonso Gorroñogoitia hil zen, 94 urterekin, bizirik geratzen zen azken sortzaileetako bat, ULGOR kooperatibako ordezkari adierazgarria, eta Mondragon taldeko hainbat erakundetako lehendakari ohia.

Irailaren 26an, Jacques Chirac hil zen, Frantziako presidentea 1995etik 2007ra bitartean. Estatu-gizona zen, eta gai izan zen hainbat koloretako indar demokratikoak biltzeko. 2003an George W. Bushen bultzatu zuen eta Tony Blair nahiz José María Aznarrek babestu zuten Irakeko Gerraren aurka agertu zen. Haren agintaldiaren hasieran, onartu

Aurkezpena

egin zuen Frantziak, juduak deportatuz, Bigarren Mundu Gerran izan zuen ardura; V. Errepublikan kargu horretan izan ziren bere aurreko presidente guztiek saihestu egin zuten gai hori. Horrez gain, klima-aldaketaren arriskuaz ohartarazi zuen biltzar batean.

Azaroaren 26an, Frantziako 13 militar hil ziren Malin, jihadistien aurkako borrokaldi batean bi helikopterok talka egin ostean.

Azkenik, abenduaren 8an, Paul Volcker zendu zen, 92 urte zituela. Volcker Estatu Batuetako Erreserba Federa-
laren burua izan zen 1979tik 1987ra bitartean, Jimmy Carterren eta Ronald Reaganen agintaldietan.

JUAN SEBASTIAN ELKANO

Urtean zehar, Juan Sebastian Elkanoren irudiarekin lotutako hainbat ekitaldi, hitzaldi eta erakusketa izan dira Eus-
kadin, munduari lehen bira eman zion espedizioa abiatu zeneko 500. urteurrena dela eta. 1519ko irailaren 20an abiatu
zen espedizioa Sanlúcarretik, Fernando Magallanes portugaldarra buru zuela. Bost ontziz osatutako espedizioa Es-
painiako erregeak finantzatu zuen, mendebaldeko noranzkoan Espezieen uharteetara (Indonesiako Moluka uharteak
edo Molukak) iristeko itsas bide bat aurkitzeko aginduz.

Ospakizun hau sarritan gutxietsi izan den balentria baten oroitzapena da, ongi merezia; izan ere, ahanzturan
geratu da, getariar itsasgizona flota-buru zutela, marinel haiek erakutsi behar izan zuten indar fisikoa eta, bereziki,
gogo-aldarteak.

Balentria hura gogora ekartzeko ekitaldiak ugaritu egin dira, baina inoiz ez dira nahikoa izango beste herrialde
batzuek Getariako marinelen meritua ez onartzeko agertu duten gogo bidegabeari aurre egiteko. Elkanoren meritua
aitortzeak ez dakar, inola ere, beste marinelen meritua gutxiestea, ez eta, bereziki, Fernando Magallanes itsasgizon
handiarena ere, hark hasi eta zuzendu baitzuen espedizioa Filipinetako Mactan uhartean hil zen arte.

Baina zer izango ote zen haren memoriaz Elkano ez balitz gai izan agintea hartzeko eta 1522ko irailean Sanlúcar-
rera iritsi zen itzulerako espedizioa zuzentzeko?

NATURA-ELEMENTUAK

SUA!!! Apirilaren 15a, arratsaldea. Parisko Notre Dame katedralak, arte gotikoaren harribitxiak eta Europan bisita
gehien jasotzen dituen monumentu historikoak, su hartu zuen astelehen hartan; sutearen ondorioz, guztiz kiskalita
geratu zen teilatua, eta haren orratz berezia erori egin zen.

Abuztuan, hondamendia eragin zuten sute ugari izan ziren gure Lur planeta zigortuan, Amazonian, zehazki; suteen
kausak ez ziren argitu (ezta ikertu ere?). Zaila da sute horiek eragin duten ingurumen-kalte gehigarria neurtzea, baina,
nolanahi ere, bistakoa da, eta handia. Askok uste dute Amazoniako sute horietako zenbait nahita eragindakoak izan
daitezkeela... Eta hala bada, zer helburu zuten?

Kanaria Handian ere sute handi bat izan abuztuaren amaieran; asko kostatu zitzaizen sutea kontrolpean hartzea,
kontrako ingurumen-baldintzak zirela-eta (haizea eta beroa). Sute horren ondorioz -2019ko larriena-, 12.000 hekta-
reatik gora kiskali ziren.

Muturreko bero-boladak eta lehorte-aldi luze batek eraginda, hainbat sute izan ziren Australian; bereziki aipatze-
koak dira urte amaieran Hegoaldeko Gales Berrian izandakoak. Lau milioitik gora hektarea kaltetuta, 1.500 bat etxe
suntsituta, hogeitik gora pertsona hilda... Datu horiek aipatzen dira, oraingoz.

HAIZEA!! Iraileko lehen egunetan, Dorian urakanak inoiz erregistratu den intentsitate handienaz eragin zuen Ba-
haman, Abaco eta Bahama Handia uharteetan, bereziki.

Espanian, "Elsa" eta "Fabien" depresioek prezipitazio indartsuak eta haize-bolada bortitzak utzi zituzten.

URA!! Abuztuan, India hegoaldeko eta mendebaldeko montzoiek eragindako uholdeen ondorioz, gutxienez 190

hildako izan ziren, eta ia 1,4 milioi pertsona ebakuatu behar izan zituzten.

Irailean, Levante ingurua astindu zuen tanta hotzak zazpi hildako eragin zituen, eta, horrez gain, kalte larriak izan ziren Alacanten eta Murtzian.

DENETARIK

Japonia. Maiatzaren 1ean, Japoniako Inperioko tronura iritsi zen Nahurito, Akihito enperadorearen semea.

Ikerketa. Uztailaren amaieran, DIARIO VASCO egunkariak iragarri zuen zenbait dementzia-motaren aurka babes-ten duen aldaera genetiko bat aurkitu zutela. Ikerketa Europa osoko berrogei talderen artean egin dute, eta horietako bat izan da BIODONOSTIA.

G-7 mugara gerturatu da. Abuztuaren 22tik 24ra, G-7ren goi-bilera egin zuten Miarritzen munduko herrialde bote-retsuenek.

Baina zertarako balio izan zuen bilkura hark eta haren inguruko parafernalia guztiak? Ez dago berririk.

Thomas Cook enpresak porrot egin du. Irailaren 23an iragarri zuten Thomas Cook konpainiak porrot egin zuela; 178 urteko ibilbidearen ostean, turismo-arloko historiako porrotik handiena izan da. 2008ko atzeraldiak eragina izan zuen konpainian, eta BREXITaren iragarpena beste eztenkada bat izan zen, enpresa historikoak eutsi ezin izan ziona.

Trump erosketak egitera atera da. Abuztuan izan zen Trump presidenteak Groenlandia erosteko egindako eskain- tzaren berri, baina Danimarkak erabat baztertu zuen; Trumpek uhartean dauden “lur arraroen” kopuru handiaz jabet- zeko asmoz egin zuen eskaintza (hogeita hemezortzi milioi eta erdi tona inguru, munduko gutxi gorabehera ehun eta sei M Tm-tik). Lur arraroetako zenbait osagaik erabilera ugari dituzte; besteak beste, mugikorretan eta imanetan era- biltzen dira.

(Estatu Batuetako komunikabideren batean, ironiaz hartu zuten albistea; iradoki zuten Trumpek bere bizilekua hara aldatzeko asmoa zuela, zerga gutxiago ordaintzeko, New Yorken zerga-kostuak jasanezinak egiten baitzaizkio).

Teknologiak arazotan. Irailean jakin zen Estatu Batuetako fiskalak GOOGLE eta FACEBOOK ikertzen ari direla eta akusatu egin dituztela, zerbitzuak monopolizatzen ari direla iritzita.

Bat-egitea. Urria amaieran, FIAT-CHRYSLER eta PSA (PEUGEOT-CITROËN-OPEL) taldeek bat egin dutela adie- razi zuten.

ISIS taldearen aurkako borroka. Urriaren amaieran, Donald Trumpek, harro eta mespretxuz betetako hitzekin, baieztatu zuen islamiar estatuko liderra, Abu Bakr al Bagdadi, hil zutela. (Indar berezien operazioa goizaldera egin zen, Barishan, Idlib Siriako probintzian).

Muga-zergak. Estatu Batuetako abiazioak arazoak izan ditzake Trumpen jarreraren ondorioz, muga-zergak ezarri nahi baitizkio Europako industria aeronautikoari, MMEk haren asmoen aldeko txostena eman ondoren. Izan ere, era- kunde horrek onartu du Erresuma Batuak, Alemaniak, Frantziak eta Espainiak, bere garaian, Airbusa eraikitzeke eman- dako laguntzak estatu-laguntzatzat aitortzea; Airbusa eraikitzeak kalte egin zion Boeing hegazkinen salmentari. Frantziak iragarri du alderantzizko neurriak hartuko dituela, EBrekin adostasunean.

Estatu Batuek % 100era arteko muga-zerga bat ere ezarri zien Frantziatik inportatutako zenbait produkturi, he- rrialde horrek Google, Apple, Facebook eta Amazoni aplikatzen dien zergari erantzuteko. Horrez gain, iragarri zuen antzeko ekintzak abiatuko dituela beste herrialde batzuen aurka. (Mehatxu hori egin ondoren, gaia zintzilik geratu zen).

Bestalde, urrian, Donald Trumpek % 25eko muga-zergak jarri zizkien Europar Batasunetik egindako nekazaritzako elikagai-produktuen inportazioari -7.500 milioi dolarreko baliokoak-, besteak beste, Espainiako zenbait produkturi, hala nola gazta, olio, olibak eta ardoa.

Pizgarriak Japonian. Abenduan, Japoniak pizgarrien programa bat abiatu zuen, 110.000 milioi euroko baliokoa, hain zuzen; programa horren bitartez, Shinzo Abe lehen ministroak Japoniako ekonomia babestu nahi du, bere he- rrialdean nahiz munduko gainerako herrialdeetan bizi den finantza-ezegonkortasuneko egoeran.

G-20ren goi-bileraren harira, Japoniak herrialde guztiei eskatu die merkataritza askea indarrez babesteko eta pro- tekzionismorako tentazioei eusteko, munduko bakearen eta oparotasunaren oinarriak arriskuan jartzen dituela baieztatu.

Estatu Batuak-Iran. 2020ko urtarrilaren 3an, Trumpek agindutako dron bidezko eraso batean, AEBk Quasem So-

Aurkezpena

leimani Irango jenerala hil zuten, Bagdadeko aireportuan.

IRANek mendekua iragarri du, eta “terroristatzat” jo du PENTAGONOA.

Petrolioa: LPEEk eta Errusiak petrolioaren beste murrizketa bat hitzartu dute, prezioei eusteko.

Merkataritzaren Mundu Erakundea. AEBk Liskarren Ebazpenerako Auzitegian dauden plaza hutsak berritzeari uko egin ondoren, 25 urtez herrialdeen arteko merkataritza-liskarrak ebatzi dituen erakundearen funtzionamendua bertan behera geratuko da, behar beste kide ez izateagatik. Donald Trumpen Administrazioak erakunde aldeaniztunen aurka egiten duen beste eraso bat da.

Errekorra. Urriaren 12an, Eliud Kipchoge kenyarrak bi ordutik beherako denboran -1:59:40.2- egin zuen maratoiko distantzia, baina baldintza berezietan eta beste korrikalari batzuen laguntza sinkronizatuarekin. Errekorra homologatu ez duten arren, aparteko marka da.

Aitortza berantiarra. Alan Turing nazien kodeak deszifratu zituen matematikaria izango da 50 LIBERAKo billetearen irudi berria; zehazki, 2021ean aterako dute billetea. Aparteko adimena duen matematikariari miresmena eta esker ona zor zaizkio; gainera, gogorarazi behar da, bere herrialdean bertan, Ingalaterran, gutxietsi egin zutela, eta zigortu ere egin zutela, homosexuala izateagatik.

Merkataritza-akordioa. Estatu Batuek, Mexikok eta Kanadak USMCA merkataritza-akordioaren azken bertsioa sinatu dute; hain zuzen ere, merkataritza-akordio horren mende dago Ipar Amerikako ekonomiaren egonkortasuna.

SIRIA: Eremu gatazkatsu horretan, giroa berotu egin da berriro, Donald Trumpen zenbait erabaki tarteko; besteak beste, Estatu Batuetako soldaduak Siriatik ateratzea agindu zuen. Han, hain zuzen, ISIS taldeko presoak zaintzeko misioa zuten, kurduekin batera, eta, horrela, bide batez, ez zituzten kurduak babesgabe uzten turkiarren aurrean. Baina, jarraitutasunerako konponbiderik gabe, Erdogan presidenteak, Estatu Batuetako presidentearen mesedea baliatuz, kurduen lurraldea inbaditu zuen; azkenean, soldadu kurduen defentsa aldakorra dela-eta, estatubatuarrek eta kurduak lurraldea utzi dute. Antza, ahaztu egin dute kurduak izan direla -armada estatubatuarrek lagunduta- ISIS taldeko milizien aurka borrokatu zirenak, islamiar estatuak okupatu zituen lurraldeak berreskuratu arte.

IRANek Trump presidentearen jomugan jarraitzen du, eta, tarteka, liskarrak sortzen dira, inguruko herrialdeen ezin negona handituz. Estatu Batuetako egungo presidentek ez zituen kontuan hartu Obama presidente zen garaian uranioaren aberastea kontrolatzeko Iranekin sinatutako akordioak -Alemaniak, Erresuma Batuak eta Frantziak ere sinatu zituzten-, eta egun, oraindik, ez ditu kontuan hartzen. Murrizketa zorrotzak ezarri zizkion edozein herrialderen eta Iranen arteko salerosketari, eta zigorra ezarri zien debekua ez betetzera ausartzen ziren enpresei; zehazki, zerrenda beltz batean sartu zituen, Estatu Batuekin merkataritza-harreman oro eragotziko ziena. Hori da azkenean datu bihurtu den ziurgabetasun horietako bat: *“AEBekin merkataritza-harremanak izan nahi badituzu, ahaztu Iranekin harremanik txikiena izatea ere”*.

Ondorioa: IRAN, suminduta, Erresuma Batuarekin, Alemaniarekin, Frantziarekin eta AEBekin adostu zituen uranioa aberastearen mugak urratzen hasi da, eta, hala, Akordio Nuklearra indarrean sartu zenetik hiru urte eta erdira, leher-tzeko zorian da, Washingtonen agurraren eta hura berriro zigorrak ezartzen hastearen ondorioz, bai eta Teheranen erreakzioaren ondorioz ere (konpromisoak murriztu ditu).

IPAR KOREA. Otsailaren amaieran, Donald Trumpen eta Kim Jong Un Ipar Koreako “lider maitearen” arteko beste bilera bat izan zen. Bilera horren ondotik, desnuklearizaziorako akordio bat sinatuko zutela uste zen, Estatu Batuek ezarritako zigor ekonomikoak kentzeaz batera, baina bilera akordiorik gabe amaitu zen; dena den, ez ziren izan, aurreko bileran, bi presidente “bertsolariek” elkarri egin zizkieten deskalifikazioak eta epitetoak (Potolo! Alproja! Giza-gaixoa!...).

Nolanahi ere, ekainaren 30ean, ustekabea, Trump Kim Jong Unekin bildu zen berriro, *Paralelo 38* famatuan, gerra odoltsu eta bukaezin bat gogora ekartzen duen lekuan -zine amerikarreko film ugari egin dira horren harira-; hala, Estatu Batuetako presidente bat Ipar Koreako lurretan izan zen. Dirudienez, bi herrialdeen arteko tentsioa baretu egin da... oraingoz, hauteskundeak datoz-eta.

LATINOAMERIKA. Latinoamerika gatazka-iturburu da berriro, bertako agintarien ustelkeriak eta biztanleria-multzo handien miseriak baldintzatuta (beti bezala). Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi Venezuela, Bolivia, Txile, Kolonbia (berriro ere), Argentina (beste behin, korralitoga gogora ekarriz), eta Bolsonororen Brasil, eta hango favelak eta Amazonia (modu sadikoan martiritatua).

Bolivian, iraultza handi samarra izan da; Evo Morales presidenteak estatu-kolpetzat jo du, eta Mexikora ihes egin behar izan du, babes bila. Jeanine Áñez ultra boliviarrak, berriz, presidente izendatu du bere burua.

ERRUSIA. Putinek beti egin ohi duen moduan, Errusiak unean-unean komeni zaiona babesten du, inguruko eremu guztia kontrolatu nahian: Ekialde Hurbiletik hasi eta Ipar itsasora arte.

Antza, Vladimir Putinek ere betiko presidente direnen taldean sartu nahi du, Errusietako “lider gorena” izendapenarekin; horretarako, ez du gauza handirik egin behar, zenbait kolaboratzaile kaleratu eta Konstituzioko lerro batzuk aldatu baino ez.

TXINA. Txinako BPGd % 6 hazi zen 2019an, hau da, aurreko urtean baino % 0,6 gutxiago; hala, duela hamarkada bat pasatxo hasitako geroz eta hazkunde-joera txikiagoarekin jarraitu da. Zenbaki absolutuetan, Txina munduko bigarren ekonomia da, AEBen atzetik, baina, bi herrialde horietan egungo hazkunde-erritmoei eutsiz gero, Txina munduko lehen ekonomia bihurtuko da hamar urteren buruan. (Alderatzeko erreferentzia bat izateko aldera, Txinako BPGd Espainiakoa baino hamar aldiz handiagoa da egun).

Aipatutako aldian, Txinak bere oldar kontsumista murriztu zuen, eta bere kanpo-merkataritzak hilabete batzuk lehenago hasitako beherakadarekin jarraitu zuen, erritmo motelagoan izan arren (otsailean, % 9,4ko urte arteko jaitsiera izan zuen). Hozte horrek eta jaitsiera horrek nazioarteko erakunde (NDF, ELGE eta EBZ) kezka sortu du; horrenbestez, beren aurreikuspenak beheraka berrikusten ari dira, Txinako ekonomiaren bilakaerak seriozki eragiten baitio munduko ekonomiari eta merkataritzari. Herrialde izugarri horrek eragin ikaragarria du, eta beste herrialde gehienek hazkundeak zehazten ditu, neurri batean. Arrisku hori bat dator AEBekin duen merkataritza-gerra partikularren ondorio negatiboekin, bai eta BREXITa, tamalez, gauzatzean sortuko diren ondorioekin ere.

Txinak hozte-aldi bat bizi du bere baitan, baina, bien bitartean, azalpen asko eman gabe, munduan eremuak konkistatuz jarraitzen du (bai eremu ekonomikoa bai eremu fisiko-geografikoa). Eta, diotenez, txinatar multimilioidunen kopurua hazten doa egunetik egunera.

Txina diseinatzen eta gauzatzen ari den Zetaren ibilbideari esker, produktuen (lehorreko) trukea -funtsean, merkataritza- hurbilagoa izango da zenbait herrialdeekin, geografiak baldintzatutako itsas ibilbideak jarraitzeagatik egun oso urrun dauden herrialdeekin, hain zuzen.

Aurreko ekitaldietan aipatzen zen gisan, Txinak kreditu oparoak emanez ere babesten ditu zenbait herrialde; herrialde horiek, beren egiturak hobetzeaz batera, asiar erraldoiarekiko mendekotasun ekonomikoa eta teknologikoa hartuz doaz.

TXINA ETA AEB-REN ARTEKO MERKATARITZA-LEHIA (Merkataritza-arloko desadostasuna eta horren ondorioak)

Txinaren eta Estatu Batuen arteko -edo hobeto esanda, Xi Jinping eta Donald Trumpen arteko- merkataritza-lehiak gerrilen arteko gerra bihurtzeko itxura izan du urte osoan, eta gerrilla horien eraso- edo defentsa-armak (kasuan kasuaren arabera) hauek izan dira: muga-zergak igotzea eta murriztea, kupoak handitzea eta kupoak murriztea, Huawei betoak jartzea eta Huawei ateak irekitzea... AEBk muga-zergak ezarri zitkien Txinako produktuei, eta neurri hori Europar Batasuneko produktuetara ere zabaltzen zuen; geroago, Txinakoak murriztu egin zituen, baina Europakoei berre horretan eutsi zien. AEBen eta Txinaren arteko “duela” da, eta, behartuta, tartean sartzen dituzte pilota-joko horretan parte hartzeko inolako asmorik ez duten beste herrialde batzuk ere. Horrenbestez, lehia horren ondorioz, penalizazioek bete-betean harrapatu dute Europar Batasuna, erakundeak berak eta erakundeak izandako indartzeak izugarri gogaitzen baitute Estatu Batuetako presidentea. Zenbait unetan, muga-zergak igotzen dizkie edo igotzeko mehatxua egiten die altzairuaren sektoreko enpresei; enpresa horiek Txinako enpresen dumpingari ere aurre egin behar izaten diete. Horrez gain, Espainiako gazta-ekoizleak, ardo-upategiak, olio- eta oliba-ekoizleak, eta Estatu Batuetara esportatu ohi duten beste hainbat sektore ere zigortzen ditu, eta zigor horiek arrazoitzeko, adierazten du Espainiako enpresek “Estatuaren laguntzarekin”- Airbus hegazkinetarako piezak ekoizten dituztela, eta, noski, hegazkin horiek lehia egiten diete Boeing hegazkinei. Horra hor, noraino iritsi garen! Estatu Batuetako enpresarekin lehiatzera! America first!... Ez du ez koherentziarik, ez proportzionaltasunik. Esaera zahar batek ongi adierazten duen moduan...

Aurkezpena

Garia (gazta) ez da gero garoa! Beraz: *“Hegazkinik ez, gaztarik ez”*.

Hala, Europako enpresa asko bi erabakiren artean harrapatuta geratu dira: batetik, dumpinga duten inportazioak, eta, bestetik, muga-zerga bidezko penalizazioak. Beraz, normala denez, zenbait enpresak finantza-arazo larriak dituzte egun, beren estrategiaren oinarri nagusitzat hauek zituzten enpresak, hain zuzen: Estatu Batuetako merkatuari eustea eta Txinako inbasioaren aurka Europatik jasotzen zuten babesa.

Txinako eta Estatu Batuetako “enperadoreek” esku artean duten jokoa, bakoitzaren ideologiarekin bat datorrena -*soft* ideologia komunista eta *strong* ideologia neoliberal- ez da bukatu 2019an, eta ez dirudi hurrengo urteetan bukatuko denik. Bien arteko lehiari dagokionez, gauza bakarra da ziurra: bi pertsonaia horiek, biak ere pisu handikoak izan arren, nahikoa malgutasun dutela atzera egiteko sakea aurkariari dagokionean. Hala, Xi Xinpingek, boterean jarraitzeko asmoz, bere herrialdeko konstituzioa aldatzea proposatu zuenean, Estatu Batuekin lehiari hastea saihestu zuen, eta barne-kontsumorako bidea bigundu zuen; bestalde, Donald Trumpek bere berraukeraketa kolokan ikusi duenean, berehala lortu du merkataritza-akordio bat, bere boto-emaile diren nekazarien produktuak Txinara esportatu ahal izateko.

“LA YENKA” eta BREXITA

♫ Izquierda izquierda derecha derecha

Adelante atrás, un dos tres

Izquierda izquierda derecha derecha

Adelante atrás, un dos tres

.....

(Johnny & Charley)

Nekez azaldu dezakegu zer urrats egin diren Europar Batasunetik irteteko akordioa lortzeko, Europar Batasunari, Erresuma Batuari eta, gehiago ala gutxiago, Erresuma Batuekin salerosketan aritzen diren beste herrialdeei kalte handirik eragingo ez dien akordioa lortzeko. Lehenbizi Theresa Mayk eta, gero, Boris Johnsonek egin dituzten joan-etorriek Beatlesen garaiko (soilik garaiko) bikote baten -Johnny & Charley- dantza ganoragabea ekartzen dute gogora; ibilbide laburreko bikote haren dantza honela zen, hain zuzen: urrats batzuk noranzko batean, eta beste batzuk kontrako noranzkoan... eta horrela, gorputzak eusten zien arte. Eta aitortu behar da EUROPAR BATASUNAK izendatutako negoziatzaileak, Mr. Michel Barnierrek, erakutsi duela zeinen ongi ezagutzen dituen Europar Batasunaren zirrikituak, bai eta merkataritza-akordioak hausteak edo aldatzeak alde bati zein besteari eragin diezazkiokeen kalteak ere. Baina, horrez gain, jarrera diplomatiko bikain -baina tinko- batez, frogatu du Akordioaren baldintzak Erresuma Batuko ordezkari batekin zein bestearekin patxadaz eztabaidatzeko eta argudiatzeko gai dela, bat-bateko haustura bat gertatzea eragotziz, zenbaitetan halabeharrezkoa zirudien arren.

2016ko ekainean hasitako istorioarekin jarraituz, Erresuma Batuko parlamentuak 2019ko martxoaren 14an onartu zituen irteerarako ibilbide zail eta bihurrian aurrera egiten saiatzeko zenbait ekinbide. Theresa Mayk lortutako akordio bat bi aldiz bota zuen atzera Parlamentuak, eta irteera-data atzeratzea onartu zuten (martxoaren 29a zen zehaztutako hasierako data). Mayren planak hirugarren bozketa gaindituz gero, luzapena laburra izango zen: ekainaren 30era artekoa. Berritoki atzera botaz gero, ordea, atzerapena bi urtera artekoa izan zitekeen. Bestalde, ez zuten onartu beste erreferendum bat egitea; izan ere, laboristek abstenitzea erabaki zuten, iritzita ez zela une egokia beste fase batera pasatzeko.

Bere akordio-proposamenak berritoki ere porrot egin zuela ikusita, Theresa Mayk maiatzaren amaieran iragarri zuen berehala -ekainaren 7an- lehen ministro karguaren dimisioa aurkeztuko zuela, bai eta toryen liderrarena ere; hala herrialdean sortutako krisia larriagotu zen.

Toryen alderdi barruan primariak egin ondoren, Boris Johnson hautatu zuten buru izateko, eta hura EBrekin biltzen hasi zen berritoki. Azkenean, aurreakordio bat egin zuen EBrekin, Theresa Mayk egindakoaren antzekoa; aurreakordioa apur bat hobea zen britainiarrek Irlandari dagokionez zituzten eskakizunetan, baina apur bat okerragoa beste aukera batzuetan. Akordio berri hori onartu egin zuen Erresuma Batuko Parlamentuak, eta Johnsonek -desafiatzaile- ziurtatu zuen Erresuma Batua Europar Batasunetik aterako zuela urriaren 31 baino lehen, *“onean edo txarrean”*, erortzen zena

erortzen zela... Baina azkenean, ez zen inor erori, ez zen irteerarik izan... Eta Borisek ilea harrotuta jarraitu zuen, beti bezala...

Abenduaren 12an, legebiltzarrerako hauteskundeak egin ziren berriro, eta Boris Johnsonen alderdi kontserbadorak gehiengo zabala lortu zuen; hala, hil horren 20an, Parlamentuak onartu egin zuen Erresuma Batua Europar Batasunetik ateratzeko akordioa, BREXIT deritzona. 2020ko urtarrilaren 31n gauzatuko zen, eta, lehen ministroak hala eskatuta, berariaz debekatu zen Erresuma Batuak eta Europar Batasunak etorkizunean izango zuten harremanaren azken estatutua negoziatzeko ezarritako trantsizio-aldia luzatzea; zehazki, 2020ko abenduaren 31 da epemuga hori. Ez dirudi Europak nahi hori onartuko duenik, irizten baita denbora dezente gehiago behar dela gauzak ongi egiteko, eta ez Mr. Johnsoni gustatzen zaion moduan, presazko "boriskadak" egiten jarduteko, eta, nahita eragindako zalaparta baliatuz, eskuaz golen bat sartzen ahalegintzeko (Maradonaren antzera).

Nolanahi ere, BREXITak oroitzapen garratzen bat utziko du alde bateko zen besteko pertsona askorengan. Behin akordioa lortuta, badirudi, Erresuma Batuan, informazioa manipulatu zuten itzal handiko pertsonen interesak gailendu direla interes orokorraren gainetik. Beste behin, *fake news* deritzenek irabazi dute, modu iraingarrian. Theresa May politikoki zigortzea eta Boris Johnson saritzea, Jeremy Corbyn lider laborista ahularen zalantzak, talde bateko zein besteko kideen urruntze desleialak, Europarekin batuta egotearen etsai amorratua den Nigel Farage bitxiaren ateraldiak, Ingalaterrako gazte gehienek protestak... Gertaera eta jarrera horiek guztiek jendearen ezinegona uzten dute agerian, haustura batek dakarren trauma dela-eta areagotu den sentipena. Etsigarria izan da lehen ministro sutsuaren jarrera. Etxekoei eta kanpokoei mehatxu egin zien Erresuma Batua Europatik indarrez aterako zuela 2019ko urriaren 31 baino lehen, baldin eta bere eskakizunekin bat egiten ez bazuten; Parlamentua geldiarazten ere ahalegindu zen, jarrera lotsagabe eta onartezin batez, eta Erregina bera ere erabakian nahasiz. Ez zuen lortu, ez bata ez bestea... baina inork ez zuen haren kontrako zentsura-moziorik proposatu. Etsigarria!

Bitxia izan arren, britainiarrak -pasibotasun harrigarritz, eta ez haiengan hain ohikoa den patxadaz - pertsonaia ulergaitz, argi eta maltzur batek, pertsonaia ziur (Hamlet ez bezala) eta oso jeloskorak (Otelo bezala), antzeztutako tragikomedia bat ikusten ari dira, Shakespeareren obrekin inolako zerikusirik ez duen obra, hain zuzen. Protagonista horrek antzezpeneraren amaierako ekitaldian erabakiko du europarra izan ala ez, eta seriozki baldintzatuko du hainbat urtetan nazioarteko erakundeek, ilusioz eta ahalegin handiz, sortutako eta ezarritako erakundeen eta mekanismoen funtzionamendua.

(Memoria hau idazten ari garen unean, ez da BREXITa amaitu, trantsizio-aldia falta baita, baina... dagoeneko galdu ote ditugu britainiarren ohiko "*courtesya*", Foreign Officen "*no comment*" esaldia, eta haien umore ingeles bikain eta miretsia? O! Good lord!)

Ironia alde batera utzita, impasse-egoera honek kezka handia eragin die Erresuma Batuarekin merkataritza-harremanak izan ohi dituzten enpresei. Gauzak nola doazen ikusita, eta, azkenean, banaketa gauzatuko ote zen ala ez argitu arren, ikusteko dago zein izango den akordioaren edukia. Argitu gabe dago oraindik, eta denbora asko beharko da horretarako; izan ere, BREXITak nazioarteko merkataritzan izango dituen zenbait ondorio berehala hauteman arren, beste asko -jakin ezin direnak- denborak aurrera egin ahala sortuko dira. Dagoeneko bota zaio torpedo Merkataritzaren Mundu Erakundeari, eta, talka egiten duenean, min handi samarra egingo du ontziaren kroskoan, are gehiago txinatarrek eta estatubatuarrek komanditan ekoitzi eta helburu berarekin jaurti duten misilarekin bat egiten badu. Merkataritzaren Mundu Erakundeak berriro planteatu beharko ditu bere arauak, baldin eta Estatu Batuak, Txinak eta Erresuma Batuak, merkataritza-arloan, norberak nahi duena egitea erabakitzen badute.

Enpresa-kulturan, dagoeneko ohikoa da, beste zenbait balio eta ezaugarriekin batera, balio hauek aintzat hartu behar diren ustea: aldaketarako jarrera irekia, horrek dakarren malgutasunarekin; berehala erantzuteko gaitasuna; eta ustekabeko egoerak jasateko eta kudeatzeko indarra (burukoa, batez ere). Izan ere, balio edo ezaugarri horiek indartu behar dira, baldin eta adi egoteari uzten diotenek lekuz kanpo geratzeko duten arriskua baztertu nahi bada.

INGURUMENA ETA KLIMA-ALDAKETA

Ingurumenarekiko eta klima-aldaketarekiko kezka herrialde guztietara hedatu da; dena den, zenbaitek eguzki-oi-hala zabaldu eta gaiaz paso egiten dute oraindik, pertsona batzuen beroaldia dela iritzita.

Gazteek manifestazio ugari egin dituzte munduko hainbat herrialdetan INGURUMENAREN defentsan, eta mugimendu horrek zabalpen berezia izan du Greta Thunberg danimarkar aktibista gazteak, aldarri modura, NBERen Klimari buruzko goi-bileran bildutako estatuburuaren aurrean egindako akusaziozko diskurtsori esker; estatuburuak kritikatu zituen, gezurtatu ezineko argudioak erabilia.

Egunez egun, geroz eta kezka handiagoa sortzen digu ingurumenaren degradazioak, naturarekiko sentsibilitate-

Aurkezpena

eta errespetu-faltak, natura-baliabideen xahutzeak eta hondakinen sorkuntzak; hondakin horien tratamendua, gainera, ez da behar bezala zaindu. Degradazioak -horren tratamenduak, osoa ez izan arren- kostu ekonomiko kalkulazina dakar, baina, kostu ekonomikoaz gain, neurtezina eta are kezkarriagoa da bizi-kalitatearen galera, hurrengo belaunaldiei neurri handiagoan eragingo diena. 2019an, zenbait neurri hartu dira, bata bestearen atzetik, leku guztietan nahita edo nahi gabe egiten diren gehiegikeriei muga jartzeko asmoz.

Klima-aldaketari dagokionez, adituek uste dute askotariko jatorriak (hainbat ekoizpen-sektoretako enpresak, etxeak, lehorreko, itsasoko eta aireko garraiobideak...) dituzten kutsatzaileak isuriz sorturiko poluzioak eragiten duela, edo poluzio hori dela, behintzat, arrazoi nagusietako bat. Itzal handiko zenbait pertsonak, ordea, ez dute pertzepzio hori, fenomeno onartzeak beren interes ekonomikoetan berehalako ondorio larriak eragingo dituen beldur baitira. AEBk klima-aldaketari buruzko biltzarretara joateari uztea sekulako eskandalua da, bereziki, erabaki hori arrazoitzeko argudioa gehien kutsatzen duten zenbait ekonomia-sektore defendatzea delako, kutsadura gutxitzeko inbertsio handiak egin beharko lituzketelako. Gutxi axola zaie beste herrialdeek -nork bere egoeraren arabera- natura zaintzarekin lotutako neurri koherenteak hartu izana. Jakina, jarrera hori onuragarria da lehenengoentzat, ekimenarekin bat egiten ez duten horientzat. Izan ere, besteek garbitzen dute beraiek kutsatzen dutenaren zati bat, eta atmosferak eskertu egingo du, eskerrak nori eman behar dizkion galdetu gabe. Pentsamolde batzuentzat, elkartasuna eta erantzukizuna terminoak pertsona ahulen asmakizunak baino ez dira; ez datoz bat jarrera gogor, tinko edota ikaragaitzekin.

2015eko Parisko biltzarrean, zenbait erabaki hartu zituzten, baina behin eta berriz gogorarazi arren, behin eta berriz utzi dituzte bete gabe, zientzialarien ohartarazpenak eta autoritate aitortua duten pertsonen deiak modu sines-tezinean mesprextatuz. Hain zuzen, azaroaren 4an, Estatu Batuek formalki jakinarazi zioten NBERen erakunde eskudunari 2020ko azaroaren 4an Parisko Akordioan atzera egiteko asmoa; izan ere, hitzartutakoaren arabera, herrialde batek data horretatik aurrera utz dezake adostutakoa bertan behera.

Abenduan Madrilen egin zen goi-bilerari buruz komunikabideek zer albiste jaso zituzten ikusirik, mesfidantzek, zalantzek, elkarri egiten zizkieten eskaerek eta konpromiso eskasek bere horretan jarraitzen dute. Gauza bakarra dago "bermatuta": gehien kutsatzen duten herrialdeek ez dute hartutako konpromisoa betetzen. Beraz, ez dago itxaropen handirik epe laburrera.

Baina zer gertatuko da hiru edo lau urte barru hondatzen jarraitzen badugu eta beste go-bilera bat egiten bada, termino horrek dakarren parafernalia, irudi eta asmatutako itxaropen guztiekin?

Izango al da aldaketarik aurreko bilerekin alderatuta? Ala, berriro ere, gazteak bilduko dira, Gretaren inguruan, haserre bizian protestatzeko, eserialdiak egiteko edota pankartak erakusteko?

Bada, zeinahi izanda ere protesta egiteko modua, aitortu behar da beharrezkoak direla; izan ere, zalantzarik gabe, munduko herrialdeen jarduna (bai zibilizatu deritzen horiena bai gainerakoena) ez da oso eraginkorra izan klima bezain gai garrantzitsuan. Are gehiago, badirudi ez dutela seriotasunez hartu, munduak dituen mehatxu nagusietako bat izan arren. Noski, ondorio txarrak ez ditugu hautemango ez belaunaldi honetan ez hurrengoan, eta, beraz, egungo agintarien eta nagusien artean, inork ez du loa galtzen etorkizun itogarri horrengatik. Baina gazteen artean ez da gauza bera gertatzen, ohartzen ari baitira -lehenbizi sorpresaz, gero harriduraz, eta, orain, suminduraz- helduei ez zaiela askorik axola ondorengoek zer etorkizun izango duten. Nahi beste teknologia eta digitalizazio utziko diete, eta bizitza luzea izango dute, baina ez dute izango birrikak betetzeko airerik, robotek (dagokien iragazkiekin) izango dituztenak salbu.

Aditu batzuen arabera, itsas mailak gora egingo du berotze globalaren ondorioz, eta 1 metrora arte iritsiko da 2100. urtean...

Horren harira, tonu ironikoan jarduten dute edozein argumentu zientifiko baztertzeko espezialistak direnek. Baliteke Donald Trumpek, arriskuari aurre egiteko, Noeren arkaren antzeko ontzi izugarriak (zenbait aurrerapenekin) eraikitzen hasteko ideia proposatzea, eta, noski, guztietan handiena -America First izenekoa- berak (edo bere espirituak) gidatuko luke, Groenlandiara, lur arraroen paradisura, bidean.

KATALUNIA

2019an, Kataluniako ekonomiak egoerari eutsi zion, oro har, herrialdeko egunerokoan izan zen asaldura politikoaz kutsatu gabe. Ondorio esanguratsuenak, segur aski, epaia eta procès mugimenduko inputatuei ezarritako kondena ezagutarazi ondoren izandako istilu larrietatik eratorriko ziren.

Zenbait adierazleren arabera, jaitsiera txiki bat izan da turismoan, atzeritik datozenengan, bereziki, baina ez dago egiaztatuta. *Bestalde, auto-industrian eragin txiki bat izan da, sektoreak mundu osoan bizi duen ziurgabetasunaren ondorioz, baina, oraindik, oso egoera onargarriari eusten dio; halere, bada uzurtze bat gerta daitekeen beldurra (ez soilik Katalunian), eta horrek muntaketa-lantegietan nahiz osagaien fabriketan eragin lezake.*

Kataluniako BPGd % 1,8 hazi da 2019an, bilakaera Espainiako batezbestekoa baino apur bat txikiagoa da. Hau da, gatazka politikoak eragina du ekonomian, baina ezin da hitz egin ekonomiaren erortzeaz, ez eta baldintza bereziki kezkarriez ere. Kataluniako gizarteak behar besteko heldutasunaz eta arduraz jokatzeari itxaron behar dugu, eta hala espero dugu, borroka ideologikoak herrestan eraman ez ditzan.

Ikuspegi sozialetik, Katalunia konpondu gabeko gaia da oraindik; are gehiago, egunetik egunera, geroz eta gehiago korapilatzen da. Horregatik, politologoek eta berriemaileen artean oso zabalduta dago Kataluniako gatazka Espainiak jasan duen blokeo politikoaren arrazoi nagusia izan den ideia. Ez alde batek ez besteak ez du egin jarrerak hurbiltzeko behar besteko ahaleginik, hau da, jarrera formalik ez bada (sentimenduarekin lotutako gaiak, elkarri ulertuz eta elkar errespetatuz), gutxienez, ekintzak, Kataluniaren nahiak neurri batean asebeteko dituztenak, estatuan inolako traumarik eragin gabe. Horri dagokionez, ezinbestekoa da Estatutua gogora ekartzea; izan ere, lehenbizi, onartu egin zuten, eta, gero, larrutu, labana koskadun eta kamuts batez.

Ikuspegi politiko batetik, 2019 bitan banatu zen: epaiaren aurreko aldia eta epaiaren ondorengoa. Eta emaitza ez zen izan ia inoren gustukoa. Kontua ez da botatuko iritzien saltsan sartzea, eta batzuen edo besteen alde jartzea; argitalpen honi ez dagokio hainbeste itxarondako epaiaren ondorengo gertakarien balorazio politikoak egitea. Soil-soilik gure atsekabea adierazi behar dugu behin eta berriz gertatu ziren indarkeria-ekintzengatik eta suntsiketengatik; izan ere, ehunka mila pertsonak modu baketsuan egindako ekintza hunkigarria lausotzen saiatu ziren -gure iritzi, lortu ez zuten arren (kasu honetan, gure iritzia emango dugu)-, baina sentimendu nazionalista katalana duten pertsonen sentimendu nazionalista espainiarra dutenek besteko errespetua merezi dute.

Elkarriketa? Behin eta berriz errepikatzen da hitz hori, baina, antza denez, izugarri zaila da ulertzeko.

Horrenbestez, beste urte batez, ondorioztatu behar dugu Kataluniako auziak konpondu gabe jarraitzen duela, gai erabakigarria izan arren; izan ere, Espainiako -eta, horrenbestez, Europako- ekonomiaren eta gizartearen bilakaeran eragiten du, Kataluniak duen garrantzia kuantitatiboa zein kualitatiboa direla-eta. Hau da, batetik, ekarpen handia egiten dio Europa osoko ondare ekonomikoari, eta, bestetik, beste era bateko ekarpena egingo dio bertan gailenduko den eredu politikoaren konfigurazioarekin, nahiak batzeaz gain, eredutzat balioko baitu Europan gertatzen diren edo gerta daitezkeen antzeko egoeretak.

Bereziki bizia izan da 2019ko azken asteetan eta 2020aren hasieran izan diren gertakarien eboluzioa -hau ere Kataluniarekin lotuta, nolabait-; ez da erraza gertaturikoak lerro gutxi batzuetan biltzea, baina saiatuko gara.

Zenbait erabakik, gertakarik, jokabidek eta erreakziok giro politikoan eragin dute, eta Espainiako gizarte osora hedatu dira. Gertakari horiek oso modu desberdinean interpretatu dituzte alde bateko zein besteko posizio eta pentsamoldeetatik egiten diren arabera -funtsean, aurrerakoiek versus kontserbadoreak-; gainera, gehiago ala gutxiago areagotutako sentimendu nazionalista desberdinek ñabardurak egin dizkiete, bai eta populismo estandar errentagarri batek ere.

Azaroko hauteskundeetatik ateratako batasun progresistak ez zituen lortu nolabaiteko lasaitasunez edo manio-bragaitasunez jardun ahal izango zuen gobernu osoatzeko behar beste boto, eta, horrenbestez, beste babes batzuk bilatu behar izan zituen askotariko merkatu politikoan -zuzenekoak edo abstentziora joko zutenak-; eta noski, merkatu horretan, tratulari kontserbadore handiak ez zeuden prest beren abstentzioa ordainik gabe emateko. Egoera horren aurrean, aurrerakoiek babes-bila aritu behar izan zuten, akordio baterako prest egon litezkeen tamaina txikiagoko taldeen babesak lortu arte; akordio hori, noski, herrialdeko ordenamendu juridikoaren baitakoa izango zen, antza denez Konstituzioa barne hartuta. Talde horien artean, Kataluniako alderdi bat zen kopuru erlatibo eta eskakizun handienak zituena, errepublikaren eta sezesionismoaren aldekoa, baina jabetzen zena beren idealak berehalakoan lortzea garaiz kanpoko -edo ezinezkoa- zela; horrenbestez, sotiltasunez betetako akordio bat lortu zuten.

Prozesu horren ondorioz, gehiengo sinple landua eta justukoa lortu zen, Gobernuaren kudeaketa korapilatsua izango dela iragartzen duena; beharrezkoa izango da zenbait kartarekin negoziatzea, baina, doktrinatu gabe eta ire-

Aurkezpena

kidurarako, elkarlanerako eta adostasunerako jarreraz eginez gero, elementu positiboa izan daiteke epe luzera, Estatu gaitan -Espainian, une honetan, asko eta oso garrantzitsuak dira- jarrerak gerturatzea ekar dezakeena. Estatu gizon-emakumeek eguneroko politikan esku hartzeko unea da. Haien "kolorea" gutxienezkoa izango da, baldin eta gai badiira egoerak eskatzen duen neurrian, objektibotasunez, malgutasunez edo "gerriaz" jokatzeko. Orain da garaia da zenbait politikarik erakusten dituzten konplexuak, nagusitasunekoak nahiz gutxiagotasunekoak (biak baitira alferrikakoak, baztergarriak eta kaltegarriak) albo batera uzteko, eta itsasoko hobi sakonenetan, titaniozko kaxetan giltzapetuta, hondoratzen saiatzeko; orain da unea, umiltasunez, ongizatea lortzeko bideak marrazten hasteko, etorkizunean konfiantza sortzeko, eta, ahaleginduz gero, gizateria egiaz humano bihurtzeko daitekeen itxaropena izateko, hau da, jabetzeko ez dela kontzeptu huts bat, zenbaitek animalietatik bereizten ahalegintzeko baino erabiltzen ez dutena (lortu ez arren).

EUSKADI

EUSTATEk ematen duen informazio zehatz eta bikainaren arabera, Euskadiko ekonomia % 2,2 hazi zen 2019an. Hazkunde hori txikiagoa izan da aurreko ekitaldian baino, baina, Europako ekonomiaren testuinguruan, datu ona dela esan daiteke. Espainia % 2 hazi zen; Europar Batasuna, % 1,4; Eurogunea, % 1,1; eta Estatu Batuak, % 2,3.

Ekonomia-jardueraren ziurgabetasun orokorraz gain, 2019an ekarpen bereziak izan ziren; batetik, BREXIT korapilatsu bat -Memoria honen hasieran aipatu da-, eta, bestetik, bi estatubururen (Xi Jinping eta Trump) arteko lehia zakar eta arriskutsua, ezin baitira haien jardunak eta erreakzioak aurreikusi, ez eta jakin ere zer albo-ondorio izango dituzten beste herrialde batzuetan eta, epe luzera, beren feudoetan. Horregatik, are nabarmenagoa da Euskadiko ekonomiak izan duen bilakaera, bertako enpresek ere hauteman baitituzte haiek hartutako neurri arbitrarioen eta hain aurreikusteko modukoak ez diren neurrien ondorioak ere, hala nola Estatu Batuek muga-zergak nahi bezala erabiltzea, ezker-eskuin, botere-irakaspenak emateko.

Katalunian eta beste autonomia-erkidego batzuetan bezala, ibilgailuen industria izan da eskaeraren jaitsierak dagoeneko kalte duen sektoreetako bat -muntaketa-fabrikak nahiz zenbait osagai egiteko fabrikak-, eta, horrenbestez, arretaz eta kezkaz erreparatzen diote automobilgintza, bere askotariko aldaeretan, nazioartean izaten ari den bilakaerari.

Espainian izan den egoera politiko nahasiak ere ez du lagundu ez aurreikuspenetan ez haren ondoriozko inbertsioetan, beti behar izaten baitute joko-arauen arrazoizko egonkortasun-berme bat, nola zergei dagokionez hala lanari dagokionez.

Beraz, ez da funsgabea adieraztea 2019an Euskadiko ekonomiak, oro har (salbuespen txiki batzuekin), ongi gainditu duela uste baino korapilatsuagoa izan den urtea, arazoak beti izaten baitira, maila batean zein bestean.

Urteko albiste onetako bat urtean zehar sortutako lanpostuen kopuruaren igoera izan da (15.600), eta, horren paralelo, langabezia-tasan izandako jatsiera; urteko batez bestekoa % 9,6koa izan zen, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako finkatutako % 10aren azpitik.

Kontsumo-prezioen indizeak urte arteko % 1,2ko igoera izan zuen, urteko batez bestekoa % 1ekoa izan arren. Jauzi horren arrazoiak petrolioaren prezioak izandako eragina da, AEBen eta Iranen arteko krisiaren ondorioz goratze indartsua baina koiunturala izan baitzuen.

Zenbaitetan, azpimarratutako datuetatik ondorioztatutako baikortasuna inbertsio-funtsen oldarrak -komunikabideek haizatuak- lausotzen du edo neurrizko baldintzetan mugatzen du, Euskadiko enpresen bilakaerari erne, haiez jabetzen ahalegintzen baitira beren errentagarritasun-helburuak betetzeko; normalean, kudeaketa-egiturei eusten diete aldi batez, baina alderdi hori ez da bermatzen sine die... Lehiaren legea da, merkatu askearen legea. Nola ez errespetatu enpresaburu batek urte askoan egindako ahaleginaren fruituen zati bat?

Erantzunak -eskuarki, ez da erraz asmatzen- beste galdera bat dakar: Salmenta-askatasun hori errespetatuz, baina al da aukerarik erabakiak Euskadin hartzen jarrai dezaten bermatzeko? Ez da berria erakundeei egiten zaien eskaera, eta, hain zuzen, bertako funtsen sustapen berriek erantzunaren hasiera markatu dute. Baina erantzuna, oraindik, oso mugatua da, agian ezin delako bestela izan... Jarrera hori eskertu, bultzatu eta sustatu behar da, ahalegin pribatuarekin bat eginda, arrakastak zenbaitetan dakartzan mehatxuei -hobe esanda, errealitatei- erantzun baitieziaieke, be-

randuegi izan baino lehen. Publikoaren eta pribatuaren arteko binomioa, zor zaion zuhurtziaz eta diskrezioz, baina, aldi berean, dagokion erabakimenez eta uste sendoz, eratzen hasi baino ez da egin... Orain, gorpuztu egin behar da.

Ikerkuntzak, garapenak eta berrikuntzak erakundeen interesa behar dute, bai eta gizartearen babesa ere, geroz eta handiagoa dena. Egunetik egunera, gizartea geroz eta gehiago jabetzen da l +G+b letrak direla, besteak beste, Euskadiko maila ekonomikoari eta sozialari eusteko giltzarria; joera hori beste lurralde batzuetara ere zabalduko da. Kontzientziazio horretan laguntzen dute bai lurralde desberdinetan dauden izen oneko ikerkuntza-zentroek bai gaia-ekin lotuta egiten diren biltzarrek eta ekitaldiek; biltzar horietan, gainera, hainbat ikerkuntza-arlotan jarduten duten beste herrialdeetako doktoreak izaten dira, nazioartean ospea duten Euskadiko adituek gonbidatuta, esaterako, Pedro Miguel Etxenikek.

Lanbide Heziketa, etengabe eguneratzen ari direna -isilean baina eraginkortasunez-, Euskadiko aktibo nagusi bat izan da, eta izango da aurrerantzean ere; oinarri sendoa du, berme osoko garapena ahalbidetzen duena.

Ikuspegi sozialetik, bestalde, badirudi baikortasuna apalagoa dela. Pentsionistek beren aldarrikapenei eusten diete, zenbait langile-taldeek lan-baldintza hobek askatzen dituzte, eta sindikatu abertzaleek aurkako jarrerari eusten diete, tinko.

Egoera horren aurrean, edo hobeto esanda, sentimendu horiek gaitzitu edo arindu nahian, patronalak eta enpresa asko elkargunea, elkarriketa eta lankidetzat bultzatu nahian dabilta, egoera horiek konpontzeko edo hobetzeko. Hau da, partekatu daitekeena partekatzea. Egiaz, gizartean bakea sentitu eta hauteman dadila nahi duten pertsona guztien txaloak eta babesa merezi ditu jarrera horrek.

GENERO-BERDINTASUNA

Egun, oraindik, ez dugu lortu gizon-emakumeen arteko berdintasuna, zenbait aldaketa egin diren arren, egoera hautemateko eta aztertzeko moduan, batez ere. Azken urteetan, aurrerapen nabarmenak egin dira lanpostuak hautagaiaren prestakuntza eta ezaugarri objektiboen arabera esleitzeari dagokionez, baina genero-berdintasunak ahula izaten jarraitzen du kasu horietan ere, inongo arrazoi objektiborik gabe, soldata-arrakala bidegabea baita oraindik. Ez da araua, baina asko dira ongi barneratu gabeko "arau" horren salbuespenak.

2018an, Espainia protesta feministaren aldeko mobilizazioen gune bihurtu zen. Munduko milioika emakumek manifestazio jendetsuak sustatu zituzten, eta haietan parte hartu zuten, berdintasuna aldarrikatzeko, inongo arin-garrik, aitzakiarik eta atzerapenik gabe. Grebak izan ziren. Gizarteak norabide zuzenean urratsak egiteko sentsibilizatuta, motibatuta eta irmo zirudien. Baina hamabi hilabeteen balantzeari erreparatuz gero, ez da oso pozgarria. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortzea xede duen mugimendu hori errazteko eta bultzatzeko politika publikoak ez dira nahikoa (edota ez dira orokortasunez aplikatzen). Eta okerrean da, Espainian, indarkeria matxistagatik eraildako emakumeen kopurua, gutxitu beharrean, hazten ari dela, astakirten higuinagarriek eragindako biktimen zerrenda latza luzatuz. 2019. urtea amaitzeko egun batzuk falta zirela, berrogeita hamabost ziren beren bikoteek edo bikote ohiek eraildako emakumeak.

Azaroaren 25ean, mundua mobilizatu egin zen berriro, emakumeen aurkako erasoak eta emakumeek bizi duten desberdintasun-egoera ozen salatuz.

Jada, ez da nahikoa zerbait gertatuko den "konfiantza izatea", hau da, "borrokatu egin behar da", zenbait erradikalek aldarrikatzen duten eta inposatu nahi duten inboluzioak ez dezan berdintasunerako bidea oztopatu; berdintasuna, gainera, lehen hezkuntzatik bertatik nabaritu behar da. Sobera daude botoak lortzeko edo besteei lapurtzeko zabaltzen diren eslogan interesatuak; ekintza zehatzak falta dira arlo guztietan, bai lan-munduan bai gizartean.

Emakumeek, oro har, berdintasuna aldarrikatzeko aski arrazoi dituztela egiaztatuz eta erakusteko (salbuespenak beraiek zehaztuko dituzte, beharrezko direla uste dutenean), Kenyako atleta bat aipatu behar da, maratoiko emakumeen errekorra egin baitu -homologatua-, bi ordu eta laurden baino gutxiagoan. Egunetik egunera, emakumeak gero eta presentego daude kirolean. Emakumeen aldarrikapen-ildo horri jarraituz, Espainiako emakume futbolariak gizonen duten hitzarmenaren antzekoa eskatu dute, profesionalak direla eta eskubide berak dituztela aldarrikatuz.

Bestalde, Ana Patricia Botín bankariak adierazi berri du kapitalismoa berrikusteko eta eguneratzeko beharra dagoela, jendeak bankuetan, enpresetan eta politikariengan konfiantza galdu duela ikusita; adierazpen horrek garrantzia berezia du, egin duenaren maila soziala eta ekonomikoa aintzat hartuta. Beste zenbait pertsonak ere ideia hori adierazi izan dute, baina ez dute lortu munduko banku nagusietako baten presidentek adierazitakoan besteko eragina. Hain zuzen ere, presidentea delako eta emakumea delako.

Aurkezpena

Aitorpen publikoa egiteko, eta lortutako merituengatik -nork (gizonek nahiz emakumeek) lortu dituen gorabehera- erakundeen babes zabala agerian uzteko, Donostiako Udalak Realeko futboleko eta hockeyko emakume-taldeein eman zien 2020ko Urrezko Danborra, 2019an egindako denboraldi bikainagatik, hain zuzen.

BERDINTASUN EKONOMIKOA

Estatu Batuetako 18 supermilioi dunek -besteak beste, Abigail Disney, George Soros eta Facebooken sortzaileetako bat- gutun ireki bat argitaratu zuten, AEBko presidentetzarako hautagaiei eskatzeko aberastasunaren gaineko zerga babestu dezatela. % 1 aberatsenei, % 1eko zerga federala ezartzea proposatzen dute.

“Estatu Batuek gure aberastasunari zerga gehiago ezartzeko erantzukizun moral, etiko eta ekonomikoa dute” adierazi dute supermilioi dunek, beren gutunean.

Sinatzaileek aberastasunari zerga jartzeko aipatzen dituzten arrazoen artean, ekimen hauek aipatu behar dira: ingurumen-ekimenak eta klima-aldaketari eman beharreko erantzunak finantzatzea, ekonomia-hazkundea sustatzea, eta osasun publikoa finantzatzea.

Gutunaren sinatzaileen arabera, aberastasunari zerga jartzea “bidezkoa eta patriotikoa da, eta demokrazia indartuko luke herrialdean, desberdintasunak gutxitzearen ondorioz”.

Muturreko desberdintasuna benetako arriskua da egonkortasun politikorako eta, ondorioz, egonkortasun ekonomikorako, kontuan harturik parametro ekonomiko handien arteko oreka ahuldu egiten dela lan-prekarietateak eta soldata-murritzetak kontsumo-eskariaren desoreka dakarrenean. Kontua ez da berdintasun osoa aldarrikatzea. Ez da Ebanjelioa. Desberdintasuna -desberdintasunen bat- giza espeziearen berezko ezaugarria da. Kontua berdintasun-maila da. Eta horretarako diren aukerak eta ezintasunak. Kapitulu honen sarrerako gutunak ez du inolako azalpenik behar. Beren urrezko mendien gailurretatik, Walt Disneyko Donald ahatearen “osaba Gilitoek” karbono-gasek hartutako herrialde baten egoera atsekabegarria ikusten dute, ogia, lana, ospitaleak eta abar eskatzen dituzten etorkin behartsuen ilara luzeekin... Eta irizten diote, berrehun edo hirurehun milioi dolarren % 1 ari uko egin arren, beren bizi-mailari eutsi ahal izango diotela, beren kaudimena, bizi-kalitate soila eta kontzientzia-lasaitasuna gehiegi okertu gabe.

ESPAINIA

Ekonomia-arloko esatari ezagunek behin eta berriz adierazi dutenez, Espainian, besteak beste, politikak (edo, hobeto esanda, politikarik ezak) zalantzak eragin ditu enpresa askotan, Gobernuak zenbait gaitan, hala nola zerga-arloan eta lan-baldintzetan, zer asmo dituen jakin behar izaten baitute; izan ere, gai horiek inbertsio-erabakietan eragiten dute.

Urtean zehar, alderdi politikoek ahalegin handiak egin dituzte unean uneko etsaiaren tesiak hondoratzeko; elkarri egotzi diote jasandako gabezia guztien erantzukizun osoa. Edozein egoera baliatuz, hotsandiko aldarriak egiten ere saiatu dira, nork bere kolorearen babesean; aberriaren oinarriekin lotutako aldarriak izan dira, hartzaile zuzenik gabeak, elkarrikerarako eta arrazionalitatearako aukera orotik nahita urrunduz. Hala, ezinezona sortu dute herritarrengan, ezinbestekotzat eta berehalakotzat jotzen ziren politiketan izandako atzerapenez aspertuta. Arinkeria negargarriaz, elkarri faxista esanez aritu dira. Berrito definitu beharko ote da termino hori?

Urteak aurrera egin ahala, lehenagotik zetozen gaiek edo promesek (erretiratuen gaia, zergak, ingurumena eta beste hainbat) ez dute jaso esperotako erantzuna, eta, horrenbestez, zenbait gai katigatu egin dira, haien konponbidea zailduz; 2020an gai horiei erantzungo zaiela espero da, harik eta politikariek, ekonomia eta bizikidetzaz indartzeko bi-detzat, elkarrikeratei ekitea erabakitzen badute (orain arte aztertu gabeko bidea). Jarrera horri esker berreskuratu behar dute azken urteetan, hautemandako hainbat ustelkeria-kasurengatik eta gai garrantzitsu batzuetan ekimenik ez izate-agatik, etengabe galdu dituzten prestigioa eta konfiantza; salbuespen ohoragarri gutxi batzuk baino ez dira izan.

Baina prestigio-galera hori ez da maila politikora mugatzen. Beste maila kritiko batetik, finantza-erakundeetara hedatu da, zenbait eragiketa kontratatzean gehiegikeriak egitea egozten baitzaie -bezero partikularrekin egindakoetan, bereziki-; benetan edo nahita egindako gehiegikeriak -legeen interpretazio berritzaileetan oinarrituta-, ezabatzea jo behar direnak. Argi utzi behar da oro har ez direla “ustelkeriazko” kasuak, egun kaltegarritzat hartzen diren praktika tradizionalak baizik; dena den, ustelkeriaren kontzeptu horrekin bat egiten du kasuren batek. Azken horiek, printzipioz, ez dute lotura zuzenik finantza-jarduerarekin edo banku-eragiketaren batean gehiegikeriaren bat egitearekin; hau da,

helburu faltsuekin elkarri gainjartzen zaizkien jarduketak dira, etikoki gaitzesgarriak eta juridikoki jazartzeko modukoak.

Hainbeste izan dira 2019. urtean eta aurrekoan (2018an) izandako zentzurik gabeko mezuak eta nahita eragindako gorabeherak, etapa horri hasiera eman zion zentsura-mozioa aspaldiko gertaera iruditzen baitzaigu, 18 hilabete baino pasatu ez diren arren. Hala izendatu zuten presidente Pedro Sanchez, mozioaren bultzatzailea; gero, aipatutako aldi horretan, hauteskunde orokorrak izan ziren, apirilaren 28an, zehazki, eta kiniela ugari egin ziren inbestidura-saioa zela-eta (bai lehenengoan bai bigarrenean huts egin zuen). Azaroaren 10ean, berriro egin ziren hauteskundeak; ez zuten egoera asko argitu, baina VOXek sarrera handia izan zuen Parlamentuan, Europar Batasuneko hainbat herrialdetan sortutako populismoaren antzekoa aldarrikatuta.

Ibilbidea bizkorra izan arren, nekez ahaztuko dira procésaren, epaiketen eta epaien ondorioak, giroa gaiztotzea eragin dutenak... Gertakari, gertaera edo bitxikeria horiek guztiek (pertsonek bakoitzak nola interpreta ditzakeen arabera) aspertzera arte bete eta girotu dute 2019. urtea, zenbaitek nekez ahazteko moduan... Dena den, beti gertatzen den moduan, etorkizunak gertaera eta egoera berriak ekarriko dizkigu, segur aski -zorionekoak, espero dezagun-, bete-betean beste dinamika batean sartuko gaituztenak, bizitzaren, ekonomia-aren, gizartearen eta norberaren dinamikak.

Bai genero-indarkeria bai ekologia (beste atal batzuetan aipatu dira) oso presente izan ditugu gure eguneroko bizitzan.

BPGd % 3 hazi zen urte hasieran, baina hiruhilekoan aurrera egin ahala, gainbehera egin zuen; hala, amaieran, % 2ko igoera izango zela aurreikusitako zen, Euroguneko batez bestekoaren gainetik (% 1,1ekoa izan zen Eurogunean).

Defizit fiskalari dagokionez, ezin izan da -% 2ko aurreikuspena lortu; -% 2,3koa izan da, zehazki.

Urte osoa kontuan hartuta, 402.300 landun gehiago izan dira, eta 19,96 milioira iritsi da. Langabezia, bestalde, 3,19 milioira jaitsi da, eta 112.400 langabe gutxiago izan dira; oso jaitsiera eskasa, beste susperraldi-urte batzuetan izandakoarekin alderatuta. Langabeen jaitsiera-eritmoa txikiagoa izan da aurrekoan, biztanleria aktiboa gehitu delako, neurri batean; azken 12 hilabeteetan, indarrez hazi da biztanleria aktiboa, 290.000 pertsona gehituta (horietatik bi heren atzeritarrak dira). Ondorioz, langabezia-tasa biztanleria aktiboaren % 13,78koa izan da; aurreko urtearen amaieran, % 14,45koa izan zen.

Espainiako Bankuak argitaratutako iraileko datuen arabera, administrazio publikoen zorra, guztira, 1,207 bilioi eurokoa zen (1.173.348 milioi eurokoa 2018an); hau da, BPGd-ren % 97,72 (BPGd-ren % 97,6, 2018an). Gizarte Segurantzaren defizita nabarmen igo zen (% 57), eta haren zorra 43.000 milioi eurokoa baino handiagoa zen une horretan.

Maiatzeko lehen hamabostaldian, Espainiako bonuaren 10 urterako interesa % 0,5en azpitik zegoen, historian lehen aldiz. Hurrengo hilabeteetan ere jaisten jarraitu zuen, % 0ra gerturatu arte, beste herrialdeetan gertatzen zenaren antzera; herrialde horietako zenbaitetan, zorrak interes negatiboan kotizatu zuen.

KPIa zakarki gutxitu zen maiatzean, zazpi hamarren jaitsi baitzen aurreko hilarekin alderatuta, eta, hala, % 0,8ko urte artekoa izan zuen (apirilean, % 1,5ekoa zuen, hiru hilabetez goranzko joera izan eta gero); 2018tik izandako mailarik txikiena zen. Bai Aste Santuaren ondoren zenbait zerbitzu eta produktu merkatzeak, bai energiaren prezioak -elektrizitateak behera egin baitzuen, aurreko urteetan izandako igoeren ondoren, eta erregaia gutxiago igo baitziren- zerikusia izan zuten inflazio-tasaren jaitsiera sendoarekin; ekainean, hain zuzen, % 0,4ra jaitsi zen (azken hiru urteetan izandako tasarik txikiena), eta behea jo zuen. Azkenean, 2019. urtearen amaieran, % 0,8ko inflazioa izan zen.

Bestalde, hainbat urtetan bere horretan eutsi ondoren, lan-kostuak igo egin dira:

- gutxieneko soldata, % 22,3;
- gizarte-kotizazioak, 4.000 milioi inguru;
- hitzarmeneko soldadak, % 2,3;
- eta, horrez gain, orduen erregistroa sartu da.

Ia 12 urte geroago, Gizarte Segurantzak beste errekor bat izan du afiliazioan. Ekainean, 75.584 pertsona gehiagok kotizatu zuten, eta 19.517.697 izatera iritsi ziren, Enplegu Ministerioaren arabera. Azken gehienekoa 2007ko uztailean lortu zen, Estatu Batuetan subprime hipoteken krisia lehertu baino hilabete lehenago, hain justu; gertaera haren ondotik hasitako krisiaren ondorioak, egun, oraindik, hautematen dira Espainian. Ondorio horietako bat da langabezia, eta, horren ondorioz, gizarte-segurantzari sarrera gutxiago egitea eta pentsioetan igoera txikiagoak egitea. Aurreko urteetan gertatu bezala (egiaz, egunero gertatzen da, aspaldi-aspaldiko garaietatik), geroz eta handiagoa den erretiratuen tal-

Aurkezpena

deak, arreta sozio-sanitarioaz gain, gutxieneko pentsioak behar bestekoak izatea eskatzen jarraitzen du, beste sarerarik ez dutenek bizitza duin bat izan dezaten. Onartutako igoera txikiek ez zituzten haien eskariak bete, eta giroa nahasi egin zen. Horrenbestez, irailaren amaieran, pentsiodunen bi zutabe Madrilera abiatu ziren Rotatik eta Bilbotik, eta urriaren 15ean iritsi ziren hara; Puerta del Solen elkartu ziren denak. Biharamunean, Diputatuen Kongresuaren aurrean manifestazioa egin zuten, pentsio duinak izatea eta lan-erreforma indargabetzea eskatzeko.

Langabezia da oraindik Espainiako ekonomian atsekabea eragiten jarraitzen duen egitura-arazoetako bat, eta tasa horren jaitsiera -urte sasoiaren arabera gorabeherekin- oso motel doa. Ez dago formula magikorik. Lanpostuak sortu behar dira, eta, aldi berean, langabeei prestakuntza eman behar zaie, lanpostu horietarako eskariaren ezaugarrien arabera prestakuntza. Erronka bete-betea, nekez gainditu daitekeena, baina hori lortzeko, ekin egin behar da, erabakimenez eta pazientziaz.

Panorama sozioekonomiko itzela jasan behar izan dute, kosta ahala kosta, erakundeek, enpresek eta, are garrantzitsuagoa dena, pertsonak, jende normalak, adjektiborik gabeko pertsonak, besterik gabe. Beren burua nahi-taetzotzat jotzen duten pertsonak askotan ahaztu egiten dituzte pertsona normal horiek; nahi dutena egiten dute, “ad infinitum”.

Egokiagoak edo eztabaidagarriagoak diren datu eta aipamen horiek gorabehera, onartu behar da buruak bira ugari ematen dituela urtebeteko benetako historia -suspenseko film baten antzekoa- hitz gutxi batzuetan laburbiltzeko edo azaltzeko; are gehiago, urte horretan politika berriro definitu dela kontuan hartuta: “posible denaren artea” izatetik “ezinezkoaren bakarriketa” izateraino.

EUROPAR BATASUNA

Ziklo politiko-administratibo berria

Europar Batasunean, ziklo politiko-administratiboek ohiko aldaketak izaten dituzte; aldaketa horietako batzuek garrantzi handia izaten dute, eta, horrenbestez, Europako Parlamentuak oniritzia eman behar izaten die. EBren erakunde nagusiak dira, eta, horien artean, finantza-erakunde baten ikuspegitik, EUROPAKO BANKU ZENTRALA (EBZ) aipatu behar da lehenbizi; izan ere, zortzi urteko agintaldiaren ondoren, urriaren 31n, Mario Draghiren lekukoa hartu zuen presidentetzan NDFren zuzendariak.

Halaber, aldaketak izan dira bai Batzordearen presidentetzan, EBren benetako gobernu-organoa, bai Kontseiluaren presidentetzan, ordezkari-organoa eta zenbait gai garrantzitsutan erabakiak hartzeko organoa, Brexitaren kasuan, esaterako; hain zuzen, Brexitaren kasuan, oso garrantzitsua izan da Donald Tusken esku-hartzea. Beste postu garrantzitsu batzuetan ere aldaketak izan dira; postu horietan aldaketak egitean, estatu kide guztiak, gehiago ala gutxiago, ordezkatuta sentitzea izaten da helburua.

Ustez garrantzi handiena duten bi karguak -EBZ eta EUROPAKO BATZORDEA- Frantziak eta Alemaniak hartu dituzte, hurrenez hurren, eta hasiera batean aipatzen ez ziren pertsonak, gainera; Europako Batzordeari dagokionez, Frans Timmermans holandarrak hartuko zuela aurreikusten zen, eta EBZkoa, Jens Weidmann alemanak, Deutsche Bundesbankeko lehendakariak.

Laburbilduz, hauek dira EUROPAKO KONTSEILU utzi berriak kargurako aurkeztutako pertsonak, EUROPAKO PARLAMENTUAN zegozkien bozketak gainditu dituztenak:

EBZrako, Nazioarteko Diru Funtseko zuzendaria: *Christine Lagarde*.

EUROPAKO BATZORDEAREN presidentetzarako, Alemaniako defentsa-ministroa: *Ursula von der Leyen*. Europako gobernuaren agintea izango duen lehen emakumea da; *Jean Claude Juncker* ordezkatu du.

Atzera-aurrera ibili dira, eta taldekako nahiz bi aldeko bilkurak egin dituzte, edozein konklabetan bezala. Herrialde guztiek beren iritzia ematea zen nahia, eta Bruselan erreferentziaren bat izatea; hala, azkenean, *Charles Michel*ek belgiarrak hartu du EUROPAKO KONTSEILUAREN presidentetza, aurrez aipatutako Donald Tusk ordezkatuta.

Bestalde, *David Sassoli* italiarra izango da aurrerantzean EUOPAKO PARLAMENTUKO presidentea.

Espainiako *Josep Borrell*, berriz, EUOPAR BATASUNEKO KANPO GAIETARAKO GOI ORDEZKARI izendatu dute.

Batzordeko presidentearen aukeraketa Europako Parlamentuaren eskumena da; askotan esan ohi da parlamentu hori erakunde garestia dela, eta praktikan, garrantzia gutxi duela. Baina egiaz, Parlamentuak -estatu kide guztietako herritarrek zuzenean aukeratutako Europar Batasuneko erakunde bakarra- soilik du Batzordeko presidentea aukeratzeko eskumena, erabaki garrantzitsua, zinez. Horrez gain, aurrez aipatutako izendapenei oniritzia ematea ere erakunde horri dagokio. Bozketa horiez gain, Parlamentuari legeak egitea dagokio, Europako Batzordearekin eta Europar Batasuneko Kontseiluarekin batera betetzen duen zeregina. Horrez gain, Parlamentuak, Kontseiluarekin batera, Europar Batasunaren aurrekontua kontrolatzen du.

Keinu ez hain britainiarra

Bitxikeria modura (bitxikeria tamalgarria izan arren), aipatu behar da, Europako Parlamentu berriaren hasiera-ekitaldian, europarlamentari ingelesek bizkar eman zutela Europar Batasuneko ereserkia entzun zenean.

... A ze koadrila... Jainkoak lagundu diezaiola erreginari!

Nekearen sintomak

Urte hasieratik, Europako ekonomiak agerian utzi zituen nekearen sintomak. Inork ez zuen “krisi” hitza esan, baina, zalantzarik gabe, punta-puntako zenbait herrialdek (Alemaniak, kasu) hauspoa galtzeak sorturiko beldurra aitortu zuten zenbaitek; Alemania atzeraldi teknikoan sartzeaz izan zen, baina ez zuen egin, eta lehen hiruhilekoan BPGd igo izanak kezka baretu zuen. Barne-kontsumoaren eta eraikuntzaren bultzadak arindu zuten merkataritza-tentsioen eta Brexitaren eragin negatiboa; hain zuzen ere, Brexita halabeharrezko gaia bihurtu da, gai deserosoa.

Testuinguru horretan, Alemaniak eta Frantziak presioa egin diote Bruselari, enpresa-talde handiak, Txinako eta Estatu Batuetako erraldoiekin lehiatzeko modukoak, sortzea bultza dezan.

Martxoaren erdialdera, albiste bat zabaldu zen, hain zuzen ere, Alemaniako bi banku handienek -Deutsche Bank eta Commerzbank- elkarrizketak hasi zituztela, biek bat egiteko aukera aztertzeke.

Merkealdian gaude... (diruaren) merkealdian

Martxoaren 8an, Mario Draghik beste likidezia-erronda bat iragarri zuen prezio baxuan (Europako bankuentzako oparizat hartu zen), eta, aldi berean, iragarri zuen interes-tasa oso baxuek denbora mugagabeen jarraituko zutela, oso albiste txarra aurreztaileentzat eta bankuentzat, beren emaitzen kontuak asko murrizten baitira interesen marjinarik gabe; horregatik, komisioren aurreratzean sostengatu dira, bai eta finantza- eta plusbalio-eragiketetan ere, baina zailtasunekin. Egoeraren araberako gorabeherekin, horixe izan da (eta izaten ari da) ekitaldiko joera; hau da, errentagarritasun-marjina estuekin jarraituko da aurrerantzean ere -bankuen kotizazioaren jaitsieran islatuko da-, eta, bien bitartean, oso zorpetuta dauden sektoreetako enpresek, hala nola elektrizitate-konpainiek, luzaroan izango dituzte interes-tasa baxuen onurak.

Sabine Lautenschläger EBZko batzordeko kideak dimisioa eman zuen Mario Draghiren politikarekin ados ez zegoelako, eta dimisioak krisi txiki bat eragin zuen erakundean, Christine Lagarde sartu baino lehen, hain justu; baina Draghik ez zuen erabakia aldatu.

Horrez gain, diruaren prezioaren aurreikuspenek negatiboak izaten jarraitzen dute. Oro har, oso orokorra da urte batzuk pasatu arte egoera ez dela leheneratuko adierazten dutenen iritzia. Horren ondorioz, inflazioak lortu nahi den % 2ren dezente azpitik jarraituko du, eta horrenbestez, aurrezteak zigortuta jarraituko du, gaur egun bezala. Beraz, epe laburrera ez da aurreikusten bankuen gordailuak haztea, are gehiago, baliteke zenbait kasutan (ez orokorrean) gordailua onartzeagatik interes bat kobratzen hastea ere, interes negatiboaren formula baliatuz, hori justifikatzeko azalpenak ulertzen ez dituzten pertsona askok dagoeneko aho txikiz onartu baitute. Izan ere, egiaz, ez da erraza populazioaren gehiengoak eskolan interesei eta aurreztearen onurari buruz ikasitako alderantzizko mekanismoa ulertzea. Zenbait irakurgai gomendagarriak izan daitezke, hala nola “Aliceren abenturak lurralde miresgarrian” eta “Ispiluan barrena eta Alicen han aurkitu zuena”, burua prestatzeko interes negatiboko gordailu batek bi urteren buruan eragin dezakeen errendimendua edo galera neurtzeko, aztertutako bi uneetan pisu batek izan duen balio-galera txikiagoarekin edo handiagoarekin alderatuta...

Aurkezpena

Iruzkina sinpleak alde batera utzita, bankuak oso kezkatuak daude, errentagarritasuna -berez, oso murriztuta dagoena- geroz eta zailagoa baita interesen egoera horrekin (negatiboa izan zein oso arinki positiboa izan). Bestalde, itobeharrez zorpetuta dauden estatuek zerbitzu arina dute, “zorra eta zor gehiago” planteamenduaren jarraipena sustatzen duena. Inork ba al daki nola jokatu duen finantza-munduak egoerak buelta ematen duenean eta zorraren zerbitzuak finantza nazionalak menderatzen dituenen? Luze joko du horrek! Agian galdera desegoki horri eman da-kiokkeen erantzun bakarra da...

“Une honetan, inbertsioak funtsezko funtzioa izango du European”, adierazi zuen Lagardek kargua hartu eta egun gutxira. Egiaz, EBZk aspalditik eskatu die gastu gehiago egiteko marjina fiskala duten herrialdeei, hala nola Alemaniari; baina, orain, Lagardek dio ez dela soilik gehiago gastatzea, horretarako marjina dutenek hobeto gastatzea baizik. Zerga-politika da gakoa. Eta kontua ez da soilik zer kopuru gastatzen den, gastua nolakoa den baizik: *“Inbertsioa bereziki garrantzitsua da egungo erronkei erantzuteko, gaur egungo eskaria eta etorkizuneko eskaintza baita”,* halaxe ondorioztatu zuen.

Eurosisistemako iturrien arabera, Lagardek oso aurreratuta du inflazioaren helburua % 2n finkatzeko ideia. Gainera, presidente berriak argi utzi du berotze globalaren aurkako borroka bere presidentziaren printzipioetako bat izango dela, tradizioz banku zentralen jardunetik kanpo egon den arloa.

Merkataritzaren Mundu Erakundeari babesa

Bestalde, Europar Batasunak erabakitasunez babestu nahi du MME -Merkataritzaren Mundu Erakundea-, egungoa ez bestelako arbitraje-bide bat ezarrita, egungoak Estatu Batuen blokeoa jasan baitu. *EL PAIS* egunkariaren arabera, Bruselaren ekimenak guztiz baieztatu du “MMEren gatazkak konpontzeko sistemaren funtsezko printzipioei eta ezau-garriari eusteko” nahia. Beraz, sistema berriak bete-betean islatuko luke egoitza Genevan duen erakundearen ideia.

Europar Batasunaren eta Mercosurren arteko akordioa

Japonian egindako G-20ren bilkura oso garrantzitsua izan da merkataritza-harremanetarako.

Txinaren eta AEBen arteko muga-zergaren gerrarekin lotutako hitzarmen garrantzitsuez gain, EBren eta Mercosurren arteko hitzarmen historikoa egin da. Hitzarmenari esker, 780 milioi kontsumitzaileko merkataritza askeko eremu bat sortu da; hala adierazi zuen Junckerrek Europako lider nagusiekin, hala nola Angela Merkel, Emmanuel Macron eta Pedro Sánchezekin, egindako ezohiko prentsaurrekoan.

Donald Trumpen auhena

Estatu Batuetako presidenteak adierazi du Europako herrialdeek merkataritzako hesi okerragoak jartzen dizkietela Txinak jartzen dizkienak baino, eta, horrela, estatubatuar eskuzabalez baliatzen saiatzen direla. Ez du ezkututzen Europar Batasunarekiko duen ezinikusi handia, ez eta Brexitak sortzen dion poza ere. Ankerki kritikatu zuen Mario Draghi, Euroaren kotizazioan izandako jaitsiera produktu amerikarrak garestitzeko amarrutzat jo baitzuen.

Kantu bat Europar Batasunari

Zorigaitzeko Brexitari baretasunez erantzuteko, beharrezkoa da herrialde kide guztiek “Europa gehiago” jarrera indartzea, eta horrek dakar bertako biztanle gehienek European sinestea, hau da, pertsona guztien European sinestea, ekonomikoki eta intelektualki indartsua dena, eta gizatasunez beteta dagoena. Espiritu hori izan behar da, herritar guztiak edo gehienak animatuko dituen, nahiz eta onartu badirela eszeptikoak edo barne-irrika baztertzailerak erresumindutakoak. Tristeia bada ere, pertsona egokiek -beren nazionalitatea edo kolore politikoa zeinahi izanda ere- zuzendutako Europa bat lortzeko interes falta hautematen da zenbaitetan; axolagabetasuna da nagusi. Normala da politika kontserbadoreagoak edo aurrerakoiagoak nahi dituzten pertsonak egotea, baina betiere kristautasunean erroturik dauden mendebaldeko balioek osatutako ikuspegi batetik. Ez al da beti izaten kasu edo kargu bakoitzerako pertsona egokia (gizona zein emakumea) aurkitzeko aukera, bere funtzioa ikuspegi zabalaz eta aberri-irizpideen gainetik edo horiei kalterik egin gabe beteko duena?

Nahi baino gehiagotan, zenbait gertaera ikusita, badirudi bat egin duten eta interes partikularrak dituzten “talde-txoek” edo “talde handien” inguruan eratzen ari dela EB, eta ez benetan “europarrak” diren ikuspegi zabalekin; hau da, erregionalismo kutsu bat dute, batzuetan geografikoa eta besteetan ideologikoa, eta horrek arnasa eman diezai-

kete, neurri batean, joera separatistei.

Hala, hainbat egunkaritan jasotako albisteen arabera, Timmermans sozialistak Europako Batzordearen presidentetza-kargurako jasan zuen gaitzespena Italiak eta beste zenbait herrialdek bultzatu zuten, besteak beste, "VISE-GRADO" deritzon taldeak (Hungaria, Polonia, Txekiar Errepublikak eta Eslovakiak osatua), holandarrak, Batzordeko lehen presidenteordea zen aldetik, bere agintaldian ireki zizkien espedienteek gogaituta.

Herrialde eskandinaviarrek ere bat egiten dute sarritan, mesede egiten dieten gaiak lantzen direnean, nahiz eta EBko beste kideen kalterako izan.

Kontrara, hegoaldeko herrialdeak -gainerakoek, adeitasunez, "pigs" esaten diete- ez dira gai zenbait ekintza elkarrekin burutzeko, beren idiosinkrasia eta Europar Batasuna babesteko ohiko jarrera (baldintzarik gabea ez bada, bai oso aldekoa) aintzat hartuta, zenbait desadostasun ere izan arren.

lazko ekitaldiko azalpenean erabilitako hitz berak gogora ekarriz (Javi Hoyos lagun eta kolaboratzaile handiari hartutakoak), gure ustez, Europak demokrazia liberalaren eta norbanakoaren eskubideak aldezteko balioen gotorleku izaten jarraitzen du, arrazoiaren eta ilustrazioaren gotorleku, "egiaren ondorengo" deritzen egungo joeren aurrean. Azken joera horiek zientzia zalantzan jartzen dute eta zientziaren ordezkariak ulertezinak bultzatzen dituzte; horrez gain, sare sozialen edo beste edozein bitartekoren bidez -baita isiluneekin ere-, engainua eta manipulazioa bilatzen dituzte etengabe, eztabaidetatik zenbait gai desagerraraziz.

Aingeruen sexuari buruz eztabaidatzen jarraitu behar al dugu, gure gazteek hainbeste miresten dituzten influentzeren aholkuak jasotzen dituzten bitartean?

BANKUAK

Pablo Hernández de Cos, Espainiako Bankuko gobernadorea, Basileako Banku Ikuskapen Batzordeko presidente izendatu berri dute banku zentraletako gobernadoreek eta estatu kideak ikuskatzen dituzten arduradunek; horrenbestez, aldi berean jardungo du bi lanpostuetan. Basileako Banku Ikuskapenerako Batzordea (BCBS, ingeleseko siglen arabera) bankuen zentzuzko erregulaziorako nazioarteko erakunde arauemaile nagusia da, eta banku-ikuskapenaren arloko lankidetzako foro bat osatzen du. Bankuak zentzuz arautzeko eta ikuskatzeko arauak ezartzen ditu, eta bai estatu kideek bai nazioarteko jardura duten estatu kideetako bankuek arauak bete-betean aplikatuko dituzten itzaropena du. Dena den, BCBSren arauak gutxienezko baldintzak dira, eta ez dira derrigorrean aplikatzekoak.

Hipotekaren legea. Espainiako higiezinaren eremuan, legegintzaldiko berritasun handia **Higiezin-kredituaren kontratu-legea** izan da, Hipoteka Legea deritzona. Espainiako bankuen arestiko historian, Bankuen eta haien hipoteka-maileguen bezero diren artean hain ohikoak diren gatazka-kasuak desagerrarazteko edo zorrotasunez gutxitzeko aukera ematen duten arauen multzoa da. Lege horrek xehetasun guztiekin arautzen du hipoteka bat kontratatzearen prozesua, bai eta eragiketa indarrean den artean gerta daitezkeen gorabeherak tratatzeko modua ere. Aurrerantzean, hipoteka-maileguak lortzeko baldintzak argi eta garbi araututa egongo dira, alde bakoitzaren gastuak zehaztuta (ia gehienak bankuen kargu), hala nola etxebizitzaren hartu beharrezko kautelazko neurriak, bankuz aldatzeko edo hipotekaren zenbait baldintza aldatzeko askatasuna, informazioa ematean gardentasuna bermatzeko obligazioa, bai eta mailegu-eskatzailak eragiketaren ezaugarriak buruzko informazioa ongi interpretatu duela egiaztatzekoa ere; horrez gain, hipoteka notario aurrean sinatu aurretik, pentsatzeko epe bat emango zaie bezeroei, eta, zenbait alderdi bermatzeko, notarioek eurek esku hartzea ziurtatuko da, bezeroari gardentasunaren inguruan aholkatza eta hori guztia akta batean jasotzera behartuz, bereziki.

(Eta zergatik ez zabaldu hain zehatz adierazitako, eskatutako eta zaindutako berme eta obligazio horiek guztiak ekonomiako beste sektore batzuetara?)

MIFID II. Hipoteka Lege horrekin batera, oso garrantzitsua izan da 1464/2018 Errege Dekretua, 2018ko abenduaren 21ekoa, Balore Merkatuaren Legearen testu bategina garatzeko, barneratzea eta aplikatzea. Aipatutako testuan batzen diren zuzentzariek, MIFID II eta MIFIR deritzenek, inbertsiogileak babesteari lotutako alderdiak -MIFID- eta merkatu-egitura sendagoak eta eraginkorragoak lortzeko modua arautzen dituzte, hurrenez hurren, bai eta gardentasuna hobetzea eta inbertsiogileak babestea ere.....

Aurrezkiak % On? Bestalde, Europako eta AEBko banku zentraletan interes-tasen beste murrizketa bat onartzeak mahai gainera ekarri du berriro etxean eta enpresen aurrezkiak ordaintzeko buruzko eztabaida. Gerta al daiteke zure erakundeak zure banku-kontuan sartutako dirua zaintzeagatik kobratzea?

Finantza-bezeroak jabetu dira, azken urteetan, beren gordailuen errentagarritasuna eroriz joan dela, poliki-poliki, % Ora iritsi arte, zenbait kasutan.

Aurkezpena

Egoerak finantza-erakundeei ere eragiten die, % 0,50eko likidezia-kostua jasan behar baitute EBZn dituzten eta maila jakin bat gainditzen duten saldoengatik. Finantza-erakundeak kostu hori enpresa handienei jasanarazten ari dira.

Egotzi al daiteke tasa hori familiei baldin eta tasa negatiboen egoera, Europan, hurrengo hilabeteetan luzatzen bada edota larriagotzen bada? “Ez. % Oren muga iraganezina da”. Erantzun hori José Ignacio Goirigolzarrik berak eman du, Bankiako presidentek; berarentzat, “pentsaezina” da Espainian aurrezten dutenei kobratzea.

BBVA-Villarejo. BBVren eta Villarejoren arteko aferak (horrela esan badaiteke) barne-konplotaren tankera hartu zuen urtearen erdialdera. González presidente zen garaiko kontseilari delegatua, bankuko segurtasunaren burua eta buruordea, eta zuzendaritzako beste zazpi kide inputatu izanak beste norabide bat eman zion gaiari. Asmoa zen barne-ikerketaren berri ez ematea kasua epailearen esku geratu aurretik, baina zurrumurruek eta filtrazioek itxura batean kasuarekin loturarik ez zuten beste instantzia batzuk seinaltatu zituzten. Egunak pasatu ahala, epailearen jardunek aurrera jarraitu zuten, eta, orain, argitalpen hau idazteko unean, beren bideari jarraitzen diote; hala, Auzitegi Nazionalak presidente ohia inputatu du. Noraino iritsiko ote da gaia?

Zein sentipen desatsegina bizi duen gizarteak, askotariko ustelkeria-kasuak nola hedatzen diren ikusteaz aspertuta!

Libera digitala. “Libera” txanpona digitalaren agerpena kolpe gogorra izan daiteke ohiko bankuentzat; horregatik, halabeharrez, bankuek etorkizunik ba ote duten galderari erantzun bat emateko beharra planteatzen da. Eta erantzuna baiezkoa da, nahiz eta banku-zerbitzuei erreferentzia egiten dion, aholkularitza-zerbitzuari, bereziki. Zerbitzua pertsonalizatzeko gaitasunak, bai partikularrei bai enpresei, aparteko garrantzia hartu du, merkataritza arloko beste sektore eta jarduera askotan gertatzen den modu berean. Finean, produktua bereiztea da xedea. Esaterako, bermeen (abalen) banku bat, produktu edo jarduera jakin batzuetan espezializatua?

Sabadellek bere kapitalizazioa indartu du Solvia 882 milioiren truke salduz.

MMT. Ohar modura, aipatu behar da, aztergai dugun ekitaldian, Moneta Teoria Modernoak (MMT) halako bultzada bat izan duela, agian ekonomialari gehienek eta, bereziki, nazioarteko zenbait erakundetako arduradunek agertutako aurkako jarrera beligeranteak bultzatuta, hala nola Nazioarteko Diru Funtsaren (garai hartako) presidentek, Christine Lagardek, zalantzan jarri baitzuen. Bestalde, teoria horrek galdetzen du ea onargarria den herrialde bateko defizita zerbait negatiboa -haren gizarte-politika baldintzatzen duena- den ustea. Dibisa propioa duen herrialde batek nahi beste diru jaulki badezake, ez du zertan defizitik izan.

Konfiantza galtzea. Azaroaren bostean, 2019ko Bankuen Nazioarteko Konferentzian egindako hitzaldian, Ana Botín Banco Santanderreko presidentek beren errua aitortu zuen, Atzeraldi Handiaren ondoren gizartean hedatu den konfiantza-galeragatik. Gaineratu zuenez, konfiantza berreskuratzeko, enpresaburuen helburu bakarra ez du izan behar akziodunentzat dirua irabaztea, hau da, gizarteko arazoez kezkatu behar dute, eta ez dute utzi behar populismoa gaitz guztien konponbide bakartzat har dadin. “Zintzoak izan gaitezen. Guk galdu egin dugu”, adierazi zuen, jendearen konfiantzari erreferentzia eginez.

Gordailuen berme-funtsa. Euroguneko herrialdeak Banku Batasunaren pieza gakoa lortzear daude. Hainbat urtetan negoziatu ondoren, Alemaniak betoa kendu dio Europako aurreztaileen gordailuak babestuko dituen berraseguratzeko komunitario bati. Trukean, Hemeretzien zenbait neurri hartuko dituzte, bankuen ikuskaritza indartzeko, arriskuak murrizteko eta bankuak zor subiranoaren eraginpean egotea mugatzeko.

Egonkortasun Mekanismo Europarrak (EME) bide-orri bat planteatu du, mugaz gaindiko finantza-merkatu bat sortzeko. Hiru fase aurreikusten dira: erkidegoko gordailuen berme-funtsa sortzea; bankuen balantzeetan zor subiranoa mugatzea; eta likideziari eta herrialdeen arteko kapital-mugimenduari ezarritako mugak kentzea bankutaldeen barruan.

AEBko interes-tasa. Estatu Batuetako Erreserba Federalak (FED), hiru erabakiren bitartez (lehena uztaillean, bigarrena irailean, eta hirugarrena urrian), interes-tasak jaitsi zituen, % 1,5 eta % 1,75 arteko mailetara. Horrek estrategia-aldaketa sakona ekarri du; hau da, prebentzioz egindako doikuntza baten gisan aurkeztu dira, ekonomiaren

hedapena sustatzeko, Donald Trumpek eusten dion muga-zergen gerrak eragindako ziurgabetasun-egoeran. Aldi berean, inflazio gehiago sortzea espero da.

ETORKIZUN HURBILEKO EGOERAK

Banku txiki baten talaiaitik begiratuta, egungo egoera sozialak eta ekonomikoak antzeko irakurketa du planetako eremu askotan, baina, noski, azterketa egiten den lekuan lekuko (eremua edo herrialdea) ezaugarriek eragin nabarmena dute.

Ekonomiaren bilakaerak, ez hainbeste ekonomiaren ageriko errealitateak, baizik zenbait aurreikuspen ezkorrek eta aurreikuspen horiek eragiten dituzten erabakiek -inongo jarraitutasunik gabeko iragarpen pozgarriekin- kezka sortu dute 2019an, beti ongi justifikatua ez izan arren. Beste behin, "itxaropenek beren burua justifikatzen dute" esaldia gogora ekarri behar da, itxaropen horiek orokorrak eta bat-batekoak direnean kasu, baina horiek ez daude justifikatuta influencerrek edo askotariko itxura duten pertsona erdi-ezkutuek sortuak eta zabalduak direnean eta, horrenbestez, ia beti kontraesankorrak direnean; aldi bateko nahastea sortu besterik ez dute egiten.

Finantzei eta, bereziki, Espainiako bankuari dagokienez -argitalpen honekin lotura zuzenena duen gaia-, aitortu behar da ez dutela bururik altxatu, baina, aldi berean, ez dira lo egon, etorrera santu modernoren baten zain; aitzitik, lo-kuluxka txikiak (siesta indargarriak) eta burukadak -bankuak etsai nagusitzat (edo bigarren etsai nagusitzat, bertako eta atzerriko zenbait politikari ezagunen atzetik) hartzen dituen gizartearen hormaren aurka jotakoak- txandakatu dituzte.

Mendebaldeko zibilizazio kristaua deritzonoko kide diren herrialdeei, zibilizazio horrekiko atxikimendu handiagoa edo txikiagoa dutenei, dagokienez, "gaiaren egoerak" (egoera soziala, ekonomikoa eta gogoarekin loturikoa) zenbait iritzi edo uste iradokitzen ditu -objektiboak nahiz subjektiboak-, eta horiek batera aztertzea lagungarria da bizi garen munduaren egungo koordinatuak kokatzeko.

Aurrerabidea zorioneko errealitate bat da, eta pertsona guztien eskura egon dadin saiatu behar da. Zientzia eta teknologia erritmo onean doaz aurrera, eta ikerkuntzak nahiz berrikuntzak -zientziaren ta teknologiaren oinarria- geroz eta bultzada handiagoa dute. Informatika eta digitalizazioa txoko guztietara iristen dira, inbaditu egiten gaituzte eta, zenbaitetan, gailendu egiten zaizkigu, edo hobeto esanda, azpian harrapatzen ditu haiek sortzen diren erritmoari (erritmo malapartatuari) jarraitzeko gai ez direnak. Horrenbestez, sinetsi arren joera sozioekonomiko nagusien jatorria esperientzia handiko humanistek gidatutako nazioarteko erakundeetako goi-instantzietan dagoela, jakin badakigu herrialde bakoitzeko eguneroko jardunaren zehaztapenak eta horiei dagozkien zuzendaritza- eta kudeaketa-lanak teknologia barneratze gaitasuna dutenen esku daudela edo egongo direla laster; horietako gehienak, gainera, gazteak dira edo izango dira, sexua zeinahi izanda ere. Eta hori horrela bada orokorrean, logikaz, horrelakoa izan behar du egoera edo gai berezietan ere, bankuekin loturiko gaietan, besteak beste.

Sarrera hau onartuz gero, etorkizun hurbileko egoera izatezko baldintzek edo egoerek mugatu dezakete; horregatik, baldintza edo egoera horiek kontuan hartu beharko dira, zenbait jardute eragozteko edo justifikatzeko hesi gisa.

Lehen hesia da KLIMA ALDAKETAREN alde eraturikoa. Gure nagusiak -Lur planetak- ezarri digun hesia da, saihestezina. (Jada aipatu dugu gaia)

Bigarren hesia AURRERAPEN TEKNOLOGIKOAREN KUDEAKETA-EREDUA da. Xedea da aurrerapen teknologiko horren ondorio positiboak eta onurak ahalik eta pertsona gehienengana iristea, haren abantailez zuzenean gozatu dezaten; baina, aldi berean, ezagutzaren erabilera desegokiak edo oldarkorrak zer ondorio eragin ditzaketen gogorazi behar zaie. Teknologia pertsona argi ororen esku egongo da, eta pertsona argiak askotariko eremuetan daude eta ideologia desberdinak dituzte; horrenbestez, erabilera baztertzailak pertsonak haserrearazi ditzake, eta, ordeztuak edo baztertuak sentituz gero, egoera hori gertatzea ahalbidetzen dutenen aurka egiteko modua aurkitu dezakete. Hori dela eta, mesfidantzak eragindako liskar-asmoak sortzeko arrisku saihestezina txikiagotzen saiatu beharko da, eta, horretarako, behar bezala transmititu behar da ezagutza.

